






795 :

1811




Amairu Astearteak (Gip).—1. ❦

AMAIRU ASTEARTEAK



Número 8.



M-8629 / R-36279

27V
58920

ESKALDI AUKERATUAK

EDO

Padua'ko Antonio Deunari

EGITEKO OTOITZ EGOKIYAK

Goizeko Jarduera—Amairu astearteak
—Meza—Kalbariyo bidea—Bederatzlurrena—Bear-
tsuen ogia.—Aitortzeko eta
Jaun-artzeko otoitzak.—Santuaren pozak.
—Bost aldareen ikustaldia.—Beste
otoitz batzuek.

L-M'tar I'ek ipiñiak.

~~~~~  
Gazteiz'ko Gotzayaren baimena ba-du.  
~~~~~

TOLOSA'N 1918-garren urtean.

E. Lopez'enean.

Egillearena da.

Obispado de Vitoria

Vitoria 14 de Mayo de 1900.

Vista la censura favorable de nuestro Arcipreste de Tolosa, que ha examinado el Devocionario *Eskaldi aukeratuak edo Padua'ko Antonio Santuari egiteko orazio egokiyak*, indicado en esa instancia, concedemos la licencia que en la misma se solicita para su impresión y publicación.

El Obispo de Vitoria.

SR. D. EUSEBIO LÓPEZ.

TOLOSA.

Del año de 1800

Este es el primer volumen de
nuestro expediente de Fidei-
comiso y el Devanadero
de los bienes de la Real
Cámara de Indias en esta
ciudad de Madrid que en
el presente año se ha
publicado.

El Director de Indias

Sr. D. Eugenio López

Tomos



KRISTAU ONAREN GOIZA.



Irukoitz guztiz Santuari

OTOITZA.

Bedeinkatua izan
bedi Irukoitz guz-
tiz deuna, Aita,
Semea ta Espiritu
Santua, iru perso-
na banakoak eta
egizko Jaungoiko
bat: nere ibillerak
zuzendu itzazu,

ta gaitz guzietatik zaindu, Ama Birjiñaren bitartekotasunaren bidez zerua iritxi dezadan. Ala izan bedi.

Goizeko Otoitza.

Jesukristo'k Betiko Aita'ri belaunikaturik otoitzegin bazion ¿nola ipiñi bearako da pekataria Jaunaren aurrean, biotzez berari agur egiteko?

Aitaren, eta Se-mearen eta Espiri-

tu Santuaren ize-
nean. Alaxen.

Maitetasun Egintza.

¡Nere Jaungoi-
koa! zure aurrean
nik, gauz guzien
jaun ta jabetzat eza-
gutzen zaitut; eta
bear dan begira-
pen guziz ezpada,
al dedanaz bein-
tzat, maitatzen zai-
tut.

Etxetik ateratzean.

Jauna, nere ibi-
llerak zuzendu itza-
zu, eta ez nazazula

utzi zugandik pekatuz aldentzen.

Elizan sartzean.

Jauna, zure etxe santuan sartu naiz, eta zure izena goratuko det.

Ur bedeinkatua artzean.

Ur bedeinkatu au nere pekatuen barkapenerako izan dedilla.

Jesus Sakramentatuaren
aurrean arkitzean.

Nere Jesus ona,
sakramentu ontan

ziñez arkitzen zera-
rala sinisten det:
biotz guziz maite
zaitut.

Gaxo batentzat Elizakoak

eramaten ikustean.

Zu zera Kristo,
Jainkoaren semea:
zure mendeko gaxo
arkitzen dana be-
gira zazu, ta gure
azken-garayan zu-
re gorputz deuna
artzea iritxi zai-
guzu.

*Aita gurea, Agur Maria ta
Gloria.*

Lanen bati asiera ematean.

Jauna, zure aintzarako, ta nere pekatuen barkapeneraco lan au eskeintzen dizut.

Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.

Erlejuak ordua jotzean.

Nere Jauna, nitzaz erruki izazu, eta zure bildur santuan bizi eta il naldilla egizu.

Pekatuan erortzeko zorian arkitzean.

Nere Jauna, ne-

ri laguntzera atoz:
pekatuan erori ez
nadin, babestu naza-
zu. Ala izan dedilla.

Pekatuan erortzen danean.

Nere Jauna, ni-
tzaz erruki zaite:
zuri kalte egiña,
biotz guziz damu
det, eta zure lagun-
tzaz pekatuan ez
geyago erortzea,
eta gaiztakeri gu-
zitatik aldentzea
eskaintzen dizut.

Ondoezik arkitzen danean.

Nere Jauna, gaitz

ontan lagundu zaidazu, eta zuk naidetzuna egin bedi.

Norbaitek kalte egin digunean.

Nere Jauna, nik barkatzen diot eta zure naitasunagatik biotz guziz maite det: artzaz eta nitzaz erruki zaitte.

Mayaren bedeinkapena.

Jauna, artzera goazen janaria, bedeinka zazu, ta bear adiña artu dezagula egizu, zure gogoa

egiteko. Jesukristo
gure jaunaren ize-
nean.

Bazkal-ondoan Jaunari eman bear
zaizkan eskerrak.

Jauna, artu di-
tugun janariaz es-
kerrak ematen diz-
kitzugu; geyegirik
egin ba-degu barka
zaiguzu, ta gure
animen betiko ja-
naria izan zaitte.

Alaxen.

Ezkillak otoitza jotzean.

Jaunaren Ain-
geruak Maria'ri

Amairu Astearteak (Gip).—2.

berri ona eman zion:

Eta Espiritu Santuaren egitez aurdun arkitu zan.

Agur Maria.

Ona emen Jau-naren mirabea:

Egin bedi nigan zuk diozun bezela.

Agur Maria.

Jaungoikoaren Semea gizon egin zan:

Eta gure artean bizi izan zan.

Agur Maria.

Otoitza.

Jauna, laguntza iguzu, aingeruak adierazirik Jesukristo'ren gizontzea ezagutu degunok, zure neke eta gurutzearren bidez betiko zeraua iritxi dezagun. Jesukristo gure jaunaren izenean. Alaxen.

Ama Birjiñari agurra.

Agur, Maria, Jainko Aitaren alaba.
Agur, Maria, Jainko Semearen Ama.

Agur, Maria, Espiritu Santu Jainkoaren emaztea. Agur Maria Irukoitz txit santuaren Eliz tababestokia. Agur, Maria, sortzetik garbia. Alaxen.

Oeratzean.

Jauna, nere anima zure eskuetan ipintzen det; pekatutik eta bat-batean iltzetik zaindu nazazu.

María txit Santuari otoitza.



María
biotz bigu-
ña, peka-
tarien ba-
bestokia;
zure laguntza eska-
tzen dizugu: gaitz
guzietatik zure ma-
galean babestu gai-
tzatzu, Ama bigu-
ña, ta Jainkoarekin
pakeak egin arte gu-
re alde beti eskatu
ezazu.

Jesus gure Erosleari otoltza.



Pekatarien
ordez ilziñan
Jaungoiko bi-
ziaren seme
Jesus errukitsua; ta
nolako eriotza!.. gu-
rutze batean, eta bi
lapurren erdian. Bi-
otz guziak, onak ba-
-dira maitatu bear
zaituzte!

Jesus'en Jainkozko Biotzari otoitza.



Jesus'en
biotz bigu-
ña! Betiko
Aitak agertu zigun
gure otoitzak beti
entzungo zituala,
esanaz: *Nere maite*
Jesus'en biotzari es-
ka zayozu; biotz one-
gatik entzungo dizut,
eta eskatzen dezun
guzia eskuratuko
dezu. Nik zure bitar-
tekotasunaz nai nu-
kena iristeko, nere
eskari guziak Beti-

ko Aitari egiten diz-
kat. Jesus'en bio-
tza! Nere eskariak
eskuratu zaizkida-
tzu, Jaungoikoaren
aintzarako eta nere
animaren onerako
ba dira. Alaxen.

Erroke Santuari otoitza.



Jainkoak
ainbeste la-
gundu dizun
Santua! Zure
ontasun aundi eta
irazekiak izurriaren
aurrez gure bitar-
tekoa izan zaite

gaitz ikaragarri ori
gugandik aldendu
dedin, eta bera gabe
gu ta gure etxeoak
arkitu gaitzen.
Zure oñetan belau-
nikaturik eskatzen
dizugu... Gure beso-
ak Zuri luzatzen
dizkitzugu..... gu-
tzaz erruki zaiten...
lagun zaiguzu!

Aingeru Zaintzalleari otoitza.



Jauna,
jakintasun
aundiz gu-
re lagun-
tzarako aingeruak
ipiñi zinduzun Neri
ipiñiak beti lagundu
dagidan laguntza
indazu. Jesukristo'
ren irabazpenen i-
zenez. Ala izan de-
dilla.

Izeneko Santuari otoitza.

Zeruan Jaungoikoarekin arkitzen zeran..... santu mai-tekorra; zure izena zikindu ez dezadan, Jaunaren aurrean nitzaz oroitu zaitte, eta zu iritxi ziñan kayera iristea irabazi ta zuk iritxi dezun guzizko zorion orretzaz izan dezadan. Alaxen.

Purgatorloko animen aldez otoitza.

Jesus biotz biguña! ildakoen animai

begi onez begira za-
yezu. Zure odol ede-
rra ixuriaz eta gu-
rutzeko miñak artu-
az oegatik il ziña-
lako. Alaxen.

Jose Santuari otoitza.



Zorioneko
Jose, birji-
ñen erregi-
ñaren senar
berdingabea!
nere aita, ne-
re lagun ta
nere ibille-
ren zuzentzalle izan
zaitte; zureen antze-

ra egizu, nere egike-
ra guziak, Jaungoi-
koaren gorapenera-
ko, nere pekatuen
barkapenerako ta
Jesus eta Mariaren
biotz garbien kaltez
egin ^{diran} diran gauzak
ordaintzeko izan di-
tezela; nere bizitza-
ren egun guzietan,
eta batez ere azke-
neko garayan lagun
zaidazu. Alaxen.

Karmen'go Ama Birjiñari otoitza.



Nere Jaun-
goikoa! zure
aitorle zori-
oneko Sime-
on'ek eskatu zizula-
ko, eta zure seme Je-
sukristo'ren Ama-
ren bidez Karmelo
mendiko lagunari
esker aundi eder bat
eman ziozuna: San-
tu orren ta Birjiña-
ren bitartez, Zu mai-
tatzen zaituztenak
iristen duten betiko
zoriona iritxi deza-

gula egin ezazu. Au-
guzia gure Jaun
Jesukristo'ren ira-
bazien bidez zure-
kin beti bizitzeko
eskatzen dizugu.
Alaxen.

*Aita gurea, Agur Maria ta
Gloria.*

**Sinispén, Itxodopen ta Maitetasu-
nezko egintzak.**

Nere Jaungoikoa!
Egi bera zeralako,
zugan sinisten det.
Guziz ona zeralako,
zugan itxodoten det.
Neurri gabe on
ta maitagarri zera-

lako, gauz guztiak
baño geyago maite
zaitut.

Zure maitetasu-
nagatik, nere urko
laguna, nere burua
bezela maite det.
Alaxen.

Padua'ko Antonio deunari otoitza.



Gure aita
Antonio deu-
nari bere mai-
tatzalleak gal-
du dituzten gauzak
arkitzeko eskubidea
eman zĩñiozun Ja-
un ta Jaungoikoa,

santu zoriontsu oni
ainbeste lagundu
ziñiozulako eske-
rrak ematen dizki-
tzut, ta bere bitar-
tez pekatuan ez
erortzeko, zure era-
kusketak jarraitze-
ko, zure laguntza
ez galtzeko, ta zori-
gaitzez galtzen ba-
det, lenbailen ira-
bazteko zeruko ar-
gia eskatzen dizut.





PADUAKO
ANTONIO SANTUAREN

AMAIRU ASTEARTEAK
EGITEKO ERA

Amairu astearte-
etan aitortu edo kon-
fesatu, Jauna artu,
eta barau egin bear
du al ba lezake An-
tonio santuaren za-

leak: Santuaren al-
darera joango da,
piztuko du argi bat,
alba du, eta entzun-
go du arreta aundiz
Meza Santua liburu
ontan arkitzen dir-
an otoitzak erreza-
tuaz, asiera onen
ondoren dagoan da-
mu-egintza, Eran-
tzunkaya, Otoitza,
santuari eskeintza
eta gañera Jesus'i
amairu *Aita gure,*
amairu *Agur Mari*
Ama Birjiñari, eta
amairu *Gloria Pa-*

tri, Irukoitzari, Santuak artu zituan eskarren ordañez; gero erakutsiko zayon Erantzunkayaren zatiaz gogorapen bat egingo du (40 garren orrialdean dago), eta azkeneko egingo du astearte bakoitzean arkituko duana.

Damu-Egintza.

Nere Jaungoikoa, txit ona zeralako, beste gauz guziak baño geyago maita-

tzen zaitudana, zure esanak ez egiña damu det, eta eskeintzen det, zure laguntzaz, lege eta agindu guziak bear dan bezela egitea. Eta zuk Padua'ko Antonio, Santu miraritsua, Jesus zure besoetan eukitzen amairu orduetan artu zenduan poz eta atsegiñaren ize nez, lagundu zaigu zu orain eta gure eriotzako garayan. Alaxen.

Antonio Santuari eskeintza.

Aingeru zerutarra, garbitasunaren ikusgaya, izardizdizaria, zeruko apaingarria, Elizaren abesendoa, oitura txarren apurtzallea, oitura onen zabaltzallea, etsayaren ikarra, inpernuaren beldurgarria eta Jainkoaren semea zure besoetan eduki zenuana eta zure itzaldi ederrez maitetasunaren ontasuna

erakutsi zenduana:
ni pekatari onek es-
katzen dizut biotz-
-biotzez artu naza-
zula zure babesean,
eta iritxi dizadazula
pekatu guzien egiz-
ko damutasuna, a-
paltasun eta onta-
sunarekin batean;
eta zu maitetasuna-
ren iturri bat izanez
piztu dezazula nere
biotz il eta legor au,
mundua, etsaya eta
aragia alde batera
osotoro uzteko. Ala
izan bedi.

Paduako Antonio Santuari

ERANTZUNKAYA.

Mirari-billa ba-zabiltza, begira itzazu eriotza eta okerrak erbeste-ratuak, zorigaiztoak eta etsayak al-deegiñik, izurrituak eta eriak sendaturik:

Itxasoa baretzen da, itxian dau-denak irtetzen dira, gorputz-zati eta ondasun galduak berriro arkitzen dituzte, bai gazteak ta bai zarrak.

Gaitz-zoriak aldegiten du, bear-tsuak lagunduak dijoaz: aitortu dezatela ala gertatu zayetenak; esan dezatela Paduarrak.

Itxasoa baretzen da, itxian dau-denak irtetzen dira, gorputz-zati eta ondasun galduak berriro arkitzen dituzte, bai gazteak ta bai zarrak.

Aitari Aintza, Semeari Aintza, Espiritu Santuari Aintza.

Itxasoa baretzen da, itxian dau-denak irtetzen dira, gorputz-zati eta ondasun galduak berriro arki-

tzen dituzte, bai gazteak ta bai zarrak.

Eskatu zayozu Jainkoari gure aldez, Antonio bedeinkatua, onela bere eskeinsarien jabe izan gaitetzen. Ala izan bedi.

Lendabiziko asteartea

ERIoTZA.

Esango dira Santuak piztu zituan ildakoak,
Erantzunkayaren lendabiziko zatia arkituaz.

Lisboa, bere err-
ian, arreba baten
seme, Parizio izena
zuen illoba bat zeu-
kan. Au, ume zala,
beste lagun batzue-
kin, ontzitxo batean
ibiltzera joan zan.
Baretsua zegoen
itxasoa; baña arrau-

nai eragiten asi bezin laister, bat-batean jaiki zan ontzixoa bereala ondoratu zuen aize indartsu bat. Igeri irten ziran beste lagun guziak. Parizio bakarrik, igeri etzekielako, ito zan. Amak berri txar au jakin zuanean, agindu zuan bere semearen gorputza atera zezatela; eta arkituaz, asi zan eskatzen bere anayari piztu zezala illoba,

bakartar edo praile
sartuko zala eske-
ñiaz; eta ontan, us-
teltzen asia zegoan
mutillaren gorpu-
tza, asi zan mugi-
tzen, begiak iriki zi-
tuan, itz egin zuan,
eta bizitzen berriro
asi zan. Aundi egin
zanean, amak eman
zion mutilla Anto-
nio'ri, bere eskeña
betetzeko, Aita
Prantzisko santuar-
en soñekoa jantziaz.
Onen antzera piztu
zuan Marka Trivi-

giana'n dendari baten seme bat, eta Leon Errogearen alaba, eta baita ere eman zion bizia beste askori, Lelio Manzini Poliziano Padua'ko Ikastetxeko irakasleak idatzizuan Santuaren bizitzan, bertan ikusi litekean bezela.

Gogorapena.

Lendabiziko itzonen berri, *eriotza*, gogoratuko du zaileak amairu astear.

tetatik aurrenekoan animaren eriotzaren oker edo kaltea; eta beragatik aitor-artzallearen bidez bere anima piztutzeko alegiñak egingo ditu. Gogoratuko du ainbeste anima, gorputzetik atera ta, Garbitokian edo inpernuko su-gar artean daudela. Gogoratuko du eriotza ixil-ixillik datorrela, bat-batetan, ustekabean, eta argatik egon bear degu-

la gertu bere etorre-
ra artzeko, zorian
Antonio santuaren
antzera betiko sartu
gaitezen, santu oni
Jaungoikoak illak
piztutzeko esker
aundia eman zion-
ezkeroz.



Gogoratze au azkendu-
ta, eskatuko diyozu San-
tuari, jarri dedilla gure
bitartekotzat, Jainko-la-
guntzaren bidez Jainkoa-
gana piztu gaitzan, peka-
tuz egin degun animaren
eriotza ayenatuta; eskatu-
ko diozu, gañera, aldendu
gaitzala bat-bateko eriotza-
tik; eskatuko diozu bere
bitartez piztu ditzala pe-
katuz ilda dauden anima
guziak. Eskatuko diozu
azkenik, atera ditzala Gar-
bitokitik bere bizitzako
pekatuak garbituarte an
arkitzen diran animak.

Egun ontako egipenak.

Santuaren zaleak egingo ditu egun ontan maitetasunezko egintzak ildakoen alde, beren illeta edo lurperatzeak lagunduaz, beren izenean Mezen bat esan-eraziaz, beartsuai laguntzak egiñaz, ildakoen otoa errezzatuaz, Errosarioaren zatien bat esanaz; eta bera pekatuz illa ba' lego, joango da bereala aitortu edo conpesatzera Jainko-laguntzan jartzeko (erraz egingo du au, Santuaren laguntzaz joango dalako) eta errezzatuko du datorren otoitz au:

Antonio Santuari Otoitza.

Zorioneko Antoniodeuna! zuri Jainkoak eman zizun eriotzari iges-eragiteko, eta illak piztutzeko goitasunagatik eskatzen dizut, eskatu zayozula Jainkoari eriyozko pekatuz ilda arkitzen diran animak piztutezen, eta baita munduan il diran eta garbitokian garbitzen daudenak zerua iritxi dezaten

ere, eta ni, pekatuz
illik arkitzen ba-naiz
Jaungoiko agana
piztu nadin, geye-
netan gorputzare-
kin anima ere gal-
tzen duen zorigaiz-
toko bat-batetako e-
riotza gerta ez da-
gidan, baizik Jain-
koarekin beti bizi-
tzekoa, zu bizi zeran
bezela. Ala izan de-
dilla.

Eskeintza, 38'garren orrian.

Joan gaitezen Elizara, amairu astearteak egiten dituztenai emanik dagoen barkapen osoa irabazteko.

Bost Aita gure, Agur Mari ta Gloria.

Bigarren asteartea.

UTS EGIÑA, OKER EGIÑA, OKER
PENTSATZEA.

Erakusten dira Santuak zuzendu zituan okerrak,
edo oker egiñak.

Damu-egintza, 36'garren orrian.

Erantzunkaya, 40'garren orrian.

Bazan bein Eliza-
ren etsai bat bere
oker pentsatzeetan
gogortua: egun ba-
tean jaten ari zala
entzun ziozkan bere
morroi bati Anto-
nio'ren mirariak;
eta ark ziona ezin
eramanez, artuzuan
mayaren gañean ze-

goan kristalezko ontzi bat, eta aserretuta bere indar guziz leyotik boteaz, esan zuan: eragotzi zayozu, Antonio, alba-dezu, milla puska ez egitea. Erori zan ontzia kalera, eta ez bakarrik etzan ausi, baizikan bera erori zan tokian zegoan arri aundi bat apurtua gelditu zan, burnizko mallu aundi batez jo izan bazuten bezela. Mirari arrigarri onek

etsayaren biotza bereala bigundu zuen, eta alde batera bere oker-egite eta pentsatze guziz utzi az, Eliz Ama santuaren besoetara bihurtu zan.

Mirari onen aopena beste bi etsairen belarrietara irixi zan bazkaltzen ari zirala, eta oyek parrez artu zuten berri ura. Bietako batek, gure Santua geyago parragarritzeko, artu zituan

eskuan mats landa-
re baten adar legor
bi, eta bere laguna-
ri, begiratuaz, esan
zion: Antonio'k bi
mats-adar legor oe-
tatik ontzi au bete-
tzeko ainbat ardo
on ateratzen ba-du,
bere alde jarriko
naiz.

Itz oek esan bezin
laister, adarrak asi-
ziran ostu ederrak
ematen, eta beren
artean mats mordo
aundi ta mardulak.
Lotsaturik ikusten

zuten mirariaz, beren bide gaiztotik aldegin zuten, penitentzi gogorrak egiñaz. Ez luzatzeko, ez ditugu esan lenago aitatu degun Lilio Manzini Poliziano'n ikusi litezken beste gertaera asko.

Gogorapena.

—

Oker-egin eta oker-pentsatzeaz gogoratuko du zaleak Antonio'ren esker aundi bat zala adimenaren oker pen-

tsatzeak zuzentzea, ezagutzeko egizko bidea emanaz eta gaiztakeria penitenti osasungarri baten bidez biotz guziz utzieraziaz.

Gogorapen au eginda, eskatuko dio zaleak Santuari kendu dizayozkala burutik oker-pentsatze guziak, eta animagatik oker-nai eta oker-egiteak, bai sinismenaren kaltekoak, ta bai zeruratzea eragozten duten beste guziak. Eskatuko du bere bitartekotasunez etorri ditezela Eliz santuaren besoetara

etsai guziak; erakustera eman dizayela sinisgabeai Jainkoaren batasuna, judarrai Aragitzearen egitasuna; eta oek bezela gezurraren mendean arkitzen diran zorigaiztokoak penitentziaren bidez ekarri ditzala, Jesukristo, zuzentasunaren eguzki ta iturria, ezagutzera.

Egun ontako egipenak.

Alegiñak egingo dira astearte ontan gure lagun-nen bategan arkitzen diran okerrak zuzentzeko, bide onera bera erakarriaz, Santuaren zale egin dedilla esanik, onek gauz

oetarako esker aundi bat izan zualako. Au eginda esango da datorren otoya.

Antonio deunari Otoya.

Zorioneko Antonio deuna: gizonen adimenak argitu ta zuzentzeko zenduan esker ederraren ize-
nez eskatzen dizut, Jesukristo gure Jainkoaganako zure bitartekotasunez nere eta beste guz-
zien adimena argitu dedilla uste okerretatik atereaz, zu-

rekin batean betiko
zoriona argi-argi
ikusteko, zuk orain
ikusten eta beti iku-
siko dezun bezela.
Ala izan bedi.

Eskeintza, 38'garren orrian.

Joan gaitezen Elizara, amairu astearteak egiten
dituztenai emanik dagoen barkapen osoa irabazteko,

Bost Aita gure, Agur Mari ta Gloria.

Irugarren asteartea.

ZORITXARRA ETA ETSAYA ALDE-
GIÑAK.

Azaltzen dira zoritxar eta etsayaren zirikal dietatik
atera diranak.

Damu-egintza, 36'garren orrian.

Erantzunkaya, 40'garren orrian.

Gizon jakintsu
bat, bañan biotz il

edo gutxikoa, izan
zan zorgin edo azti
bat bide zala enga-
ñatua, eta onek era-
kutsi ziozka: gauz
askoren ixil kontu-
ak. Sartu zuan, bein
bere gela batean,
eta ara ta onera e-
tsaiasko ibilliaz, ika-
ratu zuan gizarajoa,
oso izuikaraturik.
Gero etsayak gizona
jotzen asi ziran ta
begiak eta itza gal-
duerazirik, aldegin
zuten.

Gizona onela iku.

si zanean, agindu zuan eramán zeza-tela Santuaren elizara, eta bere okerraz damututa, Antonio'ri eskatu zion. Eta Meza santua entzuten zegoala, iritxi zanean apaiza esatera itz oek: *Benedictus qui venit in nómine Dómini....*, biurtu zitzaion ikusmena, aurrean zeuden guziak arriturik, bañan ezin zuan itzik egin. Jendiak mirari onek a-

rriturik egin zuen
iskanbillagatik, gel-
ditu zan apaiza; ba-
ñan zaletuenak ixil-
duaz, gizon arren
osasun osoagatik
eskatzen asi ziran,
Apaizak bitartean
Meza jarraitu zuen
eta *Agnus Dei*.....
esan zuanean mu-
tua itz egiten asi
zan dea darka eta o-
juka Santuaren ize-
na goratuaz, onek
bat-batetan eman
ziozkalako etsayak
kendutako mingain

eta begiak.

Padua'tik urrian dagoan erri txiki batean, Savorana'n, lapurreta bat egin zan, eta uste izan zan lapurra zala Antonio izena zuan bat, Santiago Fabro'ren semea. Lapurreta egin zanean, ezkerreko besoa oñaze aundiaz ezin mugitu zuala zegoan Antonio. Eraman zuten Erabagille edo Jueza-ren aurrera, eta bi-

dean zeramatela
egin zion Santuari
eskaera au: Antonio
santua, nik egin ba-
-det gaiztakeri ori
biotzez eskatzen di-
zut, orain ezkerreko
besoa ezin mugitu-
rik daukadan bezela,
gelditu dagidala es-
kubikoa, nere lapu-
rretaz iñori gaitzik
ez geyago egiteko;
bañan lapurretik
egin ezpa-det, gorde
nazazu, ta lagundu
zaidazu. Onela itz
egiten zijoala, eta

negar egiñaz, asi zitzayozkan ezkerreko besoko zain guziaz odolez betetzen eta erraztasun andiaz mugitzen; mirari onek osasuna ekarri zion, irabazizuan galdu zioten izen ona, eta ikusizuan erabagilleak kulpagabea zala. Bere zaleak etsayaren atzaparretatik gordetzeko Santuak egindako beste mirari asko, ez luza-tzeagatik uzten di-

tugu, Lelio Manzini'k idatzi zuan Santuaren bizitzan zeero ikusi litezkean bezela.

Gogorapena.

Itz oez Antonio' ren zaleak gogoratu bear ditu bere esker ederrak, Jainkoaren esker edo laguntzak gizona etsayaren zirikaldietatik eta oyen antzeko lanetatik gordetzeko onek eskuratu zitualako. Gogoratuko du ga-

ñera Antonio dala
laguntzallerik one-
na etsai eta zori-
gaitzen aurrean.

Gogoratze onen ondo-
ren eskatuko zayo Santua-
ri zaindu gaitzala etsaya-
ren gaiztakeri guzietatik
eta mundu ontako estura-
sunetatik, zerua iristeko.

Egun ontako egipenak.

Egun ontan egin liteke
itz oek diotena, beartsuai
lagunduaz, zorigaiztokoai
biotza arinduaz, gaizki ar-
kitzen diranai limosnak
emanaz, eta orien antzeko
egite onak egiñaz. Asmo

oek artuezkero, egingo dira alik laisterren; bañan ezin ba-da, biotzez egingo dira. Bitartean esazu datorren otoya.

Antonio deunari Otoya.

Beartsu guzien laguntzalle aundi izan zihan Antonio deuna! biotz biotzez eskatzen dizut Jainkoagandik esker eder ori artu zenduanekero, ala nai dezazula erakutsi kristauen onerako artu zenduela; one-

la etsayak garaituaz,
lan guzien saria be-
tiko irabazi deza-
gun. Ala izan bedi.

Eskeintza, 38'garren orrian.

Joan gaitezen Elizara, amairu astearteak egiten
dituztenai emanik dagoen barkapen osoa irabazteko.

Bost Aita gure, Agur Mari ta Gloria.

Laugarren asteartea

LEGENARTSU TA ERIAK SENDATUAK

Egiztatzen da Santuak eriak sendatu zituala

Damu-egintza, 36'garren orrian.

Erantzunkaya, 40'garren orrian.

Albontse, Portu-
gal'eko erregearen
alaba, bere urterik
onenetan txit gaizki

arkitzen zan. Tere-
se bere amak beti
zeukan gogoan otoi-
tzetan bere erriak
zeukaten zorionta-
suna Antonio'ri zor
ziola, eta alabaren
osasuna eskatzen
zion. Onela eskatzen
ari zala, arkitu zuan
alaba kordegabetua,
eta il zala uste izan
zuan. Agertu zitza-
yon alabari orduan
Santua, eta esan
zion zer nai zuan
geyago, edo berare-
kin zerura joan, edo

amaren pozerako lurrean gelditu.

Artu zuan gazteak bigarren asmoa, eta gerrian zeraman lokarria luzatuaz esan zion muñ eman zekiola. Korderatu zan orduan, eta bere amari itz egiten asi zitzayon esanaz an arkitzen zala Antonio Santua, eta muñ emateko luzatu zion lokarritik elduta zeukala, eta eman ziola osasuna. Orduan ama-alabak,

alkar laztanduaz,
adoratu zuten San-
tua, au alabak baka-
rrik ikusten bazuen
ere. Amak, Jainkoa-
rentzako bere esker
ona agertu nayan,
agindu zuan berak
bizi ziran, Alanker
zeritzan errian, za-
baldu zezatela mi-
raria guziyen bela-
rrietara iritxi zedin,
eta emateagatik
Santuari eskerrak,
alabari osasuna e-
man ziolako. Beste
mirari asko esan di-

tezke onen antze-koak.

Gogorapena.

Itz oyez gogoan artuko du zaleak Jainkoak Santuari eman zion esker aundia, bai gorputzaren ta bai animaren gaitz guztiak sendatzeko; beragatik ba-dirudi Antonio dala osasuna eskuratzeko bitartekorik onena.

Gogoratze au eginda eskatuko zayo Santuari, gu-

re gaitz guzietatik sendatu gaitzala, eta ezpa-ditugu, zaindu gaitzala oyek arrapatzetik; eta batez ere animaren gaitzetik.

Egun ontako egipenak.

Egun berean, eta era daukanean, joan bear degu gaizki daudenak ikustera, gaitza obeto eramateko al duan ongien itz egiñaz, eta gorputzaren gaitza askotan animaren osasuna dala erakutsiaz. Ezin ba-ditu gauz oek egin egitez, egingo ditu nai edo gogoz bederik.

Bañan batez ere, ikusi bear ditu, bere okerraka-

tik biotza galduta eta anima gaizkituta daukatenak, eta egingo ditu alegiñak gaitz oek penitentzi bidez sendatzeko. Santuari esango dio datorren otoitza.

Antonio Santuari Otoitza.

Gure gorputz eta animaren gaitz guzien sendagille eta sendagaya, biotzez eskatzen dizut senda dezazula nere gorputza, edo zaindu dezazula gaitzetik; eta nere animak, zure bitartez senda-

tuta, gaitza alde batera utzirik, osasun osoarimundu ontan eutsi dezayola, eta gero betiko gozatu dezadala mundu ontara egizko osasuna ekarri zuanarekin batean. Amen.

Eskeintza, 38'garren orrian.

Joan gaitezen Elizara, amairu astearteak egiten dituztenai emanik dagoen barkapen osoa irabazteko,

Bost Aita gure, Agur Mari ta Gloria.

Boskarren astearlea.

ITXASOAK BARETZEN DU BERE
ASARREA.

Erakusten dira itotzetik atera diranen mirariak eta
espetxe edo kartzelatik atera diranena.

Damu-egintza, 36'garren orrian.
Erantzunkaya, 40'garren orrian.

1784'garren ur-
tean, gutxi gora be-
ra, agertu zan Pa-
dua'ko errian Miko-
zza'tar Domeka, San
Jenaro-errian ja-
yoa, eta onek konta-
tu zuan baso batean
lapur batzuek, bide-
ra irten zitzayozka-
la, eta diru guzia

ostu ondoren, estu-
-estu arbol bati lotu
zutela, eta orduan
eskeñi zion Santua-
ri bere il-obia ikus-
tera joatea, lotura
ayetatik azkatzan
ba-zuan. Orduan i-
kusi zuan lokarriak
berenez erori zi-
tzaizkala, eta, oyek
artuaz, eramán zi-
tuan Santuaren o-
bira. Antxe bertan
ikusten dira gaur.
Onen antzeko beste
mirari asko esan
gintzake, luzatuko

ezpa-gendu, baña ikusi ditezke lenago izendatu degun idazlarian.

Gogorapena.

Itz oyez Santua-
ren zaleak bere go-
goa jarriko du Jain-
koagandik Antonio'k
iritxi zituan bi es-
kubide oyetan: itxa-
soko ekaitzetatik be-
re zaleak ateratzea,
eta lotuak arkitzen
diranak azkату, ta
loturik gabe uztea.

Eskatuko dio gero Santuari, naiz bera dala itxasoan dabilena, naiz beste zaleren bat, ekaitz edo itxaso gaiztoetatik zaindu dezala; lotuak azka ditzala, eta espetxe edo munduko kartzeletan arkitzen diranak atera ditzala. Banañan oraindik gogo geyagoz eskatuko dio azka ditzala ere pekatuaren katez loturik arkitzen diranak.

Egun onlako jarduera.

Eskaera onen ondoren, alegiñak egingo ditu itxasoan ia galduan ibilli diranai laguntzeko, eta kar-

tzeletan lotuta daudenak ikustera joango da, Santuaren antzera maitetasunezko egintzau urko lagunarentzat egiteko; eta egitez ezin bada, gogoz bederik egiten aleginduko da. Gogorapena bukatuta, egingo dio Santuari emen datorren otoya.

Antonio deunari Otoya.

Zuri, itxasoan galtzeko zorian dabiltzanen kai ederra eta kristauen egizko azkatasuna, eskatzen dizut biotz-biotzez, zure bitartez

Amairu Astearteak (Gip). —6.

zaindu nazazula,
baita zure zaleetako
beste edozein, itxa-
soan galtzetik, eta
bertako ekaitz eta
zorigaitzetik, mun-
du gaizto ontako lo-
tura guzietatik, eta
batez ere pekatuen
kateetatik, eta onela
iritxi gaitela zu
Jesus'ekin batean
arkitzen zeran beti-
-betiko zorioneko
kai ortara. Alaxen.

Eskeintza, 38'garren orrian.

Joan gaitzen Elizara, amairu astearteak egiten
dituztenai emanik dagoen barkapen osoa irabazteko,

Bost Aita gure, Agur Mari ta Gloria.

Seigarren astearlea.

GORPUTZ ZATI ETA ONDASUN
GALDUAK.

Erakusten dira itotzetik atera diranen mirariak eta
espetxe edo kartzelatik atera diranenak.

Damu-egintza, 36'garren orrian.

Erantzunkaya, 40'garren orrian.

Galdurik bein
Trento'ko zaldun
batek aintzira edo
urtoki geldi batean,
arri dizdizariz bete-
tako erraztun eder
bat, eta arkitu zedin
Praile batzuen bu-
ruzariak meza bat
eman zualako, bial-
du zion zaldun arr-

ek, bere esker ona agertu nairik, erosi zuan arrai bat. Praileak iriki zute- nean, arkitu zuten barruan erraztuna, eta bialdu zioten be- re jabeari, ta onek eman ziozkan San- tuari eskerrak.

Gogorapena.

Itz oyez gogoan artuko du Santua- ren zaleak gizona- ren gorputz zati le- gortuak eta elbarri- tuak sendatzeko, es-

kubide arrigarria
Jainkoak Antonio'ri
eman ziola, eta bai-
ta bere jabeentzat
oek galdu dituzten
gauza guztiak arki-
tzekoa ere.

Gogoratze onen ondor-
en, eskatuko dio Santuari
elbarrituen gorputz zati
guziak sendatu ditzala, ja-
beak beren gauzak arki
ditzatela, eta batik-bat pe-
katariak galdutako Jain-
ko-laguntza, ta beren oke-
rrez utzi zuten zerurako
bidea.

Egun onlako jarduera.

Seigarren astearte on-
tan beartsu elbarrituai la-
gunduko die, berai maite-
tasunezko egipenen bat e-
giñaz; eta besteren gauzik
ba'leuka, bereala itzuliko
dio jabeari; eta besteak
dauzkaten iñoren gauzak
beren jabeai itzultzeko ale-
giñak egingo ditu, eta egi-
tez au ezin ba-du, egin
beza beintzat biotzez. Go-
gorapenaren ondoren e-
sango dio Santuari urren-
go otoitz au:

Antonio Santuari Otoitza.

Antonio maita-
garri, elbarrituen
sendatzalle: gaurko
egunean nik bio-
tzez eskatzen dizut
elbarriturik arki-
tzen diran zure zale
guziai Jainkoagan-
dik osasun osoa es-
kuratu ditzayezula;
eta gauzen bat gal-
du duten ayei, bera
lenbailen arkitzea.
Eskatzen dizugu ba-
tez ere, nik edo edo-
zeñek galdu baldin

ba-degu gure peka-
tuen bidez Jainkoa-
ren laguntza, zure
bitartekotasunez ai-
torlearen oñetan
berriro irabazi de-
zagula. Alaxen.

Eskeintza, 38'garren orrian.

Joan gaitezen Elizara, amairu astearteak egiten
dituztenai emanik dagoen barkapen osoa irabazteko.

Bost Aita gure, Agur Mari ta Gloria.

3azpigarren asteartea

LEGENARTSU TA ERIAK SENDATUAK

Egiztatzen da Santuak eriak sendatu zituala.

Damu-egintza, 36'garren orrian.

Erantzunkaya, 40'garren orrian.

Firenze'ko uriedo
erria txit oitua ze-

goan amairu aste-
arten eraspina An-
tonio santuaren go-
rapenerako egitera
eta batek eta bes-
teak zaletasun orren
bidez eskuratutako
laguntz asko entzu-
ten ziran.

1653'garren ur-
tearen Apirilleko
28'an, Job zeritzan
bost urteko mutil-
txo bat, Jaime Ra-
bujati ginballagi-
llearen eta Margari-
ta Gallesi'ren se-
mea, arpegia garbi-

tzera joanik, Gora
izena duan ibai ba-
ten ozin aundi ba-
tean erori zan. Bi
neskek erortzen iku-
si zuten, eta andik
igaro ziran asko An-
tonio Santuari eska-
tzen asi ziran. Oyen
arte an arkitzen zan
perzkille bat, eta
onek lagundu nai
izan zion makil luze
batez, eta ikusi zua-
nean ezin zuela, asi
zan Antonio san-
tuari otoitz egiten
(onen izenean barau

egiten zuen egun artan, bigaramonian bederatziurrenaren azkenengo astearteazalako) eta esan zuen iru bider, guztiak entzuten ziotela, *Antonio bedeinkatua, lagun zayozu*. Bitartean begiz galdu zan Job, eta urak indar aundiaz eramán zuan errota bateko gurpillak zebiltzan tokira, ta gauzak berenez gertatzeotan, mutillak purrkatu

ta zapaldua gelditu
bear zuan. Bañan
ez, Job igaro zan
beste aldera gurpil
fartean: errotariak
uste izan zuten ari-
zatar edo zapi gorri
bat zala, mutillaren
jantzia orrelakoa
zalako; eta, ikusi zu-
tenean mutilla zala,
urtara sartu ziran,
ta igeri atera zuten
erori zan tokitik mi-
lla berreun oin ur-
tan ibilli ondoren.
Aterata, uste izan
zuten illa zegoela,

korderik eta mugierik gabe ikusirik, eta ba-zirudien besoak, eskuak eta oñak ausi edo ateriak zeuzkala.

Deitu ziotenean mutillaren amari, au asi zan Antonio santuari otoi egiten eta bere izeba bat joan zan laisterka Gurutze santuaren elizako Antonio santuaren aldarera, eskatzerà. Bitartean mutilla bizkortzen asi zan eta eramane zuten bere etxera,

oraindik erdi illa,
eta besoak ausita.
Bere aita etxera iri-
txi zanean, Job'ek
esan zion: *Atezulo
batetik igaro naiz.*
Orduan esan zioten
aitari on izango za-
la mutillari odol
piska bat ateratzea,
eta berak erantzun
zuan: *Antonio san-
tuak osoro sendatu-
ko du, eta ez det nai
sendatzalle batek sen-
datze onen izen aun-
di edo aomena era-
matea. Ala gertatu*

zan; andik sei ordu-
ra mutilla sendatua
jeki zan, beñere ezer
gaitzik izan ez ba'lu
bezela, eta ibilli zan
Firenze'ko errian
denak ura ikusita
arritzen zirala, eta
Isabel Nikolasa Vi-
tella markesak, prai-
le jantzi zuen mu-
tiltxoa. Onen antze-
ko mirari asko ikusi
ditezke lenago izen-
datu degun idaz-
lean.

Gogorapena.

Itz oyez zaleak gogoan artuko du Santuaren bitartekotasuna indar aundikoa dala, bere aldekoak zorigaitzetatik salbatzeko eskubidea emateaz Jainkoak naitasun aundia diola ondo erakusten digulako.

Gogoratze onen ondoren eskatuko dio Jaungoikoari edozein kristau eta batez ere bera zorigaitzetatik gorde dezala.

Egun ontako egipenak.

Egun ontan Santuaren zaleak urko lagunari lagunduko dio, eta al dituan lan guziak arinduko diozka, eta au itz eta egitez ezin ba-du, beñepein gogo biziz naiko du. Gogorapenaren ondoren eskatu dezayoke Santuari otoitz one bidez.

Antonio deunari Gtoya.

Zure zaleak gorputz eta animaren aldetik izaten dituzten munduko zorigaitzetan salbatzen

Amairu Astearteak (Gip).—7.

eta gordetzen dituzun Santu aundiyanik eskatzen dizut zure bitartekotasunaren bidez edozein kristau gorde dezazula, batez ere zure maitatzalleak, arkitzen zaizten edozein zorigaitzetatik, zeruko bide zuzenean jarriyaz; zure aldamenean zoria betiko izan dezagun. Ala gerta dedilla.

Eskeintza, 38' garren orrian.

Joan gaitezen Elizara, amairu astearteak egiten dituztenai emanik dagoen barkapen osoa irabazteko,

Bost Aita gure, Agur Mari ta Gloria.

3ortzigarren asteartea.

BEARRAK AZKENDU DIRA.

Erakusten dira Santuak esturasun askotatik bere zaleak gordetzeko egin dituan mirariak.

Damu-egintza, 36'garren orrian.

Erantzunkaya, 40'garren orrian.

Bonelli zeritzan napolitar musikalaria bat, zerekin bizi-rik etzeukalako Napolles'tik Erroma'runtz atera zan; eta an ere bere etxekoa-kin esturasun aundian arkitzen zala-ko, eliz batera joan zan Santuaren egu-

nean, otoitz egitera. Au egiñik, irten bezin laister, jaun batek atean eman zizkan zillarrezko diruak, arkitubaz bere etxea jan gauzez egun askotarako ornitua, eta gañera Espoleto'ko eliz nagusiko musikalarien buru egiten zuten paper-agiri batzuek. Ementxe bizi izan zan pake ederrean bere etxe-koakin.

Gogorapena.

Gertaera onezaz gogoa jarriyaz gogooan artuko du, Jainkoak Antonio santuari eman zion bere zale guziak arkitzen diran bearretatik ateratzeko eskubidea, eta Santuak egunero guzizko mirariak esturasun larri-gogorretatik bere zaleak gorde ta ateratzeko egiten dituala.

Gogoratze au egiñik, eskatuko dio bera eta beste edozein kristau gorde ditzala, gorputzaren eta animaren bearretatik, naiz egunetako, naiz betikoetatik, erlijioari ez dagokion gauzik egin ez dezaten.

Egun onlako jarduera.

Egin ditzake astearte ontan urkoaren aldeko egintzak bai gorputzez ta bai animaz, bearrean arkitzen diran guziai lagunduaz, eta au guztia Santuaganako naitasun edo debozioz. Baña egintzez ezin ba-du, naiko du beintzat gogoz. Gogoratze onen

ondoren datorren eskaera
au egin beza.

Antonio Santuari Otoitza.

Munduko bear gu-
zien zuzentzalle ta
laguntzallea: goiz
ontan nik eskatzen
dizut, nai izan deza-
zula nere eta beste
kristau guzien bea-
rrak zuzentzea, bai
gorputzarenak ta
bai animarenak, eta
onela alaituta, zure
bitartekotasunez zu-
rekin batean betiko
zoriontasuna izan

dezagula. Ala gerta dedilla.

Eskeintza, 38'garren orrian.

Joan gaitezen Elizara, amairu astearteak egiten dituztenai emanik dagoen barkapen osoa irabazteko.

Bost Aita gure, Agur Mari ta Gloria.

Bederatzigarren asteartea.

PADUARRAK ITZ EGIN DEZATELA;
SANTUAREN LAGUNTZAK ARTU
DITUZTENAK AGERTU
DITZATELA.

Erakusten dira itotzetik atera diranen mirariak eta espetxe edo kartzelatik atera diranenak.

Damu-egintza, 36'garren orrian.

Erantzunkaya, 40'garren orrian.

**Esker onak bear-
tzen du Santuaren
zalea amairu aste-
arte oen bidez artu**

ta iritxi dituen laguntz guzik toki guzietan eta kristau guziaz esatera Antonio'ren aunditasuna onela zabalduaz; baita ere eman diozkan laguntzak, sinismendun guziaz eraspen au artzera eta Antonio santuaren berarizko zaleak izatera deituaz, Parduarrak egiten duten eran, bada oek Santuaren mirariak zabaltzen dituzte, eta eskatzen dute

beti bere obi aurr-
ean.

Gogorapena.

Pentsatzen jarri
zaite Antonio'ren
indar aundiaz, eta
bere bitartez Pa-
dua'n egunero ikus-
ten diran mirari ots
andikoetan. Emen-
dik atera lezake
Jainkoarekiko San-
tuaren bitartekota-
sunaren aunditasu-
na, bera maite du-
tenentzat bai mun-
duko bai zeruko es-

ker guziak iristeko.

Gogorapenaren ondoren Santuari eskatuko diot bere lurperatze egunean, asteartean, erriko iskanbil guziak paketu zituen bezela, nere biotza ere paketu dezala, zeruko atsedengoza iritxirik.

Egun ontako egipenak.

Antonio'ren zaleak egun ontan zabalduko ditu Santuak eman diozkan laguntz eta eskerrak, beste sinismendunai amairu asteartean zaletasuna artzera eta Santuaren aldarera etortzeko deituaz Santuak

ala on ba-zaizka eskatzen
dituan esker ta laguntzak
iritxiko dizkalako.

Antonio Santuari otoitza.

Santu arrigarria,
nik biotz biotzez es-
katzen dizut astear-
te-egunez gertatu-
takozure lurperatze
edo illetaren ize-
nean Padua'erriko
iskanbillak paketu
ondoren, ain gauza
miragarri aundiz
lagundu ziyezun be-
zela, orain eskatzen
dizudan laguntza

neretzat iritxi zaidazula. Ala izan bedi.

Darkera.

Antonio deunari bederatzaurrena ondo egin bearzayo; baña toki askotan, eta batez ere Napoles'en, debotoak amairu asteartearaño luzatzen dituztenezkero, nai duanak urrango lau astearteak ere jarraitu litzake, Santuaren esker batzuk, ikusiko dan bezela oyetan erakusten diralako.

Eskeintza, 38'garren orrian.

Joan gaitean elizara, amairu astearteak egiten dituztenai emanik dagoen barkapen osoa irabazteko.

Bost Aita gure, Agur Mari ta Gloria.

Amargarren aslearte.

*Damu-egintza, 36'garren orrian.
Erantzunkaya, 40'garren orrian.*

Gogoratu beza za-
leak Jainkoak deitu-
zion garaitik, Anto-
nio'k aberastasun
eta ondasun guziak
alde batera utzirik
eta Jainkoaren deya
jarraituaz, gazte-
gaztea zala Agus-
tin santuaren Ka-
nonigo egin zala,
eta bost praile pran-
ziskotar Marroko'
tako erregeak illera.

zi zituala entzunaz,
beriala Prantzisko
santuaren soñekoa
jantzi zuala, eta erri
artarako bidean bi-
zia bertan galtzeko
gogoetan jarri zala:
baña gaitz gogor
batek joaten utzi e-
tzion, ta bere mar-
tirioko gogo ura bio-
tzean beti gordeaz
Errumania'ko Pau-
lo Mendira joan zan,
an bere gorputza
barau ta lan gogor
eta neketsuz minbe-
ratzera.

Egun ontako egipenak

Zaleak al duan aña bider, egun ontan goguan jarriko du, ez bakarrik munduko gauzak aintzaketzat ez artzea, ta Jainkoaren deyai jarraitzea, baizikan baita ere, sinis-menarengatik bizia ezin eman duanezkeroz, bere griña txar-gaiztoak Santuaren antzera zuzentzea; onek, oker egingabea izanik, egin zituan bezela gorputz minberatze gogorlatzak egiñaz.

Antonio Santuari Otoitza

Nere Santu mai-

tea, ikusten deta-
nean zuk oker-egin-
gabea ziñalarik, pe-
nitentzi egin zen-
duela, lotsatzen naiz
nitzaz; eta pekatu
askoren jabe naizela
ikustez ikaratzen
naiz. Zure zalien
animak salbatzeko
ainbeste gogo dau-
kazun naitasunezko
nere laguntzallea,
nik eskatzen dizut
nere biziera gaiztoa
lenbailen zuzentze-
ko bidea eta orain-
dañoko pekatuen

ordez penitentzia egiteko Jainkoaren-gandik laguntza irixi dizadazula. Ala izan bedi.

Eskeintza, 38'garren orrian.

Joan gaitean elizara, amairu astearteak egiten dituztenai emanik dagoen barkapen osoa irabazteko.

Bost Alta gure, Agur Mari ta Gloria.

Amaikagarren asteartea.

Damu-egintza, 36'garren orrian.

Erantzunkaya, 40'garren orrian.

Gogoan artu beza zaleak gure Santuak jakintsu izan arren, bere jakintasuna munduari ez agertzeko alegiñak egin

zituala; gañera esker eder guziz Jainkoak jantzia bazeukan ere, gizonik beartsu ta argalena bezela agertu naitzuela. Eta onela, bere etsayak gaizki ezatez bete izan arren eramanaundi bat beti izan zuen eta Jainkoari eskatzen zion bere etsayai barka zitzayela.

Egun onlako jarduera.

Egun ontan zaleak egingo du umiltasunezko

egiteren bat, esker edo laguntz ori eman dezayola Jainkoari eskatuaz, eta bere gogo edo burutik arrokeri eta andinaizko asmo txar guztiak urrutiratzea; ta gañera egingo du maitetasunezko egintzen bat.

Antonio Santuari otoitza.

Nere santu ona, geigo ta geigo ikusiaz zure umiltasuna, ta gaizkiesanak etsayari barkatzeko zure ontasuna, ge-yago ere lotsatzen naute nere biotzean gordeta dauden as-

mo zitalak. Ixil izaten ez dakit: nere burua agertu nayan nabil. Ez dakit paketsu izaten: bestera, itz-zulatzalle bategatik nere etsayai gorroto artzen diet berai ontasuna bakarrik opa bearreran.

Zure bitartekotasunaren bidez, umiltasuna Jainkoarengandik eskuratu-ko ba-zidazuke, bai zorionekoa izango nitzakeala, itz txa-

rren bat entzutean
eraman on, ta mai-
tetasunez, al dedan
laguntz guzia urko
lagunari egiteko.
Ala izan bedi.

Eskeintza, 38'garren orrian.

Joan gaitezen Elizara, amairu astearteak egiten
dituztenai emanik dagoen barkapen osoa irabazteko,

Bost Aita gure, Agur Mari ta Gloria.

Amabigarren asteartea.

Damu-egintza, 36'garren orrian.

Erantzunkaya, 40'garren orrian.

Gogoan artuko du
zaleak, bere buruari
ziyon gorrotuagatik,
Santuaren bizitza

guztia gorputz-min-beratzeluz bat izanzala; eta Jainkoagan bakarrik pentsatzen pozez jarrita, mundu ontako gauzetatik orduan oso urrutiratua zegoala.

Egun ontako egipenak

Bere aldera daukan naitasuna egunontan Jainkoari erakutsi bear dio; munduko gauzetatik urrutiratuko dala; ta, bere asmo txar gaizto guztiai gogor egiñik, arpegi eman-go diyela eskeñiaz, Santuari orretarako bear

duen laguntza eskatuta. Gañera gorputza minberatzeko gauzen bat egingo du.

Antonio Santuari Otoitza

Nere santu maitakorra, kristau naiz ni, bañan neretzat bigun eta penitentzi gutxiren zale: obeto dirudit sinismengabe bat. Nere buruari geyegi naiz diot; gorputz minberatzerik ez det nai, eta gurutzerik eramane ere Jesus'en antzera, gauz guz-

tiak baño geyago
bera maitetuaz. Au
nere animarentzat
erokeri kaltetsua da-
la ezagutzen det;
bañan aldegin ezin
diot, eta ez naiz ne-
regan jarriko, zuk
zure beso indartsuz
eutsiaz, laguntzen
ezpadidazu; eta, zu-
re mingañaz nere
ordez Jainkoari itz
egiñaz, iristen ezpa-
didazu nere biotzari
eman dezayola nere
etsairik gaiztoena
garaitzeko indarra,

Jainkoa bear nuke- an bezela maitatu dezadan.

Eskeintza, 38'garren orrian.

Joan gaitezen Elizara, amairu astearteak egiten dituztenai emanik dagoen barkapen osoa irabazteko.

Bost Aita gure, Agur Mari ta Gloria.

*Amairugarren eta azkeneko
asteartea.*

Damu-egintza, 36'garren orrian.

Erantzunkaya, 40'garren orrian.

Gogoan artuko du
zaleak, bere zentzu-
nai, pekatutik gor-
deaz beti garbi irau-
teko zaitu ote di-
tuan, eta Jainkoa-
ren deyak zuzenki

egin zituen beñere
lan gogor latz ayen
aurrez jeiki gabe;
eta onela, gogo ta
asmo onez beterik,
bere anima Jainkoa-
ri eman ote dion,
ordañetan betiko zo-
riona irabaziaz.

Egun ontako egipenak.

Egun ontan zaleak pe-
katua uzteko ziñezko as-
moak egingo ditu, eta
Jainkoaren deyai ondo
erantzutea, oyek bere go-
goaren aurrekoak izan-
arren. Eta urko laguna bi-
de gaiztoen batean ikusten

ba-du, artatik ondo-esanaz
aldentzen aleginduko du.

Antonio Santuari Otoitza.

Ikusten dedanean
Santu biotz biguña,
azkendu zenduela
bizitza zure anima
Jainkoaren besoe-
tan geldituaz, go-
goa berotzen zait
neri ere alako zorio-
na nere eriotzan iza-
teko alegintzea, ba-
ñan ori iristeko ez
det ezer egiten. Ne-
kату gabe nai nuke
zoriontasuna: garai-

tu · nai nuke, baña
griña txarrai arpe·
gi eman gabe; nai
nuke Jainkoaz beti·
ko poz izan, ta gor·
putz·minberatzerik
egin nai ez det. ¡Zo·
rioneko nere bitar·
tekoa! itzuli itzazu
zure begiak nik egin
ditudan zure egin·
kizunetara; arpegi
onez artu itzazu,
neretzat indarra iri·
txiaz Jainkoaren
bildurrean igaro·
tzeko mundu ontako
nere egun laburrak,

eta oen ondoren zuk
iritxi zenduan beti-
ko zoriontasuna iris-
teko. Ala izan bedi.

Eskeintza, 38' garren orrian.

Joan gaitean elizara, amairu astearteak egiten di-
tuztenai emanik dagoen barkapen osoa irabazteko.

Bost Aita gure, Agur Mari ta Gloria.

**Padua'ko Antonio santuaren mingain
txit santuari agurra.**

Beti Jaungoikoa
bedeinkatu zenduen
mingain bedeinka-
tua.

Orain ikusten da
argiro.

Zure onbide ta

indarra Jainkoaren
aurrean aundia
izan zala.

ÿ. ¡Itz egille ar-
gidotarra! ¡zorione-
ko Antonio! eskatu
zazu gure aldez.

R). Zure bitarte-
kotasunaren bidez
betiko zoriontasun
ori iritxi dezagun.



BEARTSUEN
ogia.

Egintz
au txit
berria
da, ba-
ñan o-

na eta
osasun-
tsua, eta
alde gu-
zietara
bereala
zabaldu da.

Ona emen nola Tou-



lon'go jostun baten dendaren atzeko gelatxo batean orain urte gutxi dalarik asiera izan zuan.

Goiz batean, Bouffier zeritzan etxe-koandre bat joan zan, beti oi zuan bezela, bere denda irikitzera; eta ezin irikiaz, serralla nastu zalako, errementari bati deitu zion Ordu bete baño geyagoan atea iriki nayan alperrik auaritu zan. Ezin zue-

la ikusirik, serralla austeko tresnen bila bere etxera joan zan. Bitartean emakumea gelditu zan Padua'ko Antonio'ri otoi egiten, atea ausi gabe irikitzen bazion, beartzuentzat ogia ezkeñiaz; eta langillea iritxi zanean esan zion ikusteko lenbizi ausi gabe iriki al-zitekean atea. Emakumeak agindutakoa egiten errementaria asizan; lendabizi esku-

ra arkitu zuen gilitza serrallan sartu zuen, eta begira zauden guziak arritzen zirala, atea, berez bezela, iriki zan.

Gertaera au bereala zabaldu zan; ikasbide onen antzerak askok erregutu zuten, eta eskerrak artu ere bai.

Bouffier etxeako andreak, artu zuen laguntzagatik bere esker ona Santuari erakusi nayeon, Antonio'ren irudi txiki

bat denda atzean jarri zuen, eta andik gutxira ikusi zuen asko ta asko belau-nikatzan ziralá irudiaren aurrean, eskaerak eskeintzakin batean utziaz.

Eskaerena ondo-
ren gauza eskeñiak
etorri ziran, artzen
zituzten laguntzen
ezagungarri. Berea-
la ugaritu ziran:
1894'garren urtera-
ko eun milla peseta
baño geyago bildu
ziran. Oyek lagun-

tza aundia eman
zioten beartsu, ta
eritegi edo gaxote-
gi askoi.

Jainkoak lagun-
tzen du argiro An-
tonio'ren bitartez,
eta naiko ogi bear-
tsuai eskuratzen die

Onelako egikera
ona ezin egon zite-
kean zabaldu gabe,
ta zabaldu da. Ar-
gatik gaur toki gu-
zietan jarria dago.

Irakasbidea.

Vitre'n Paris-izeneko kalearen 44'garren etxean bizi zan andre L. M.'ek 1894'garren urteko Apirillaren 5'ean Kujes'ko apaiz jaunari idazten zion: «Il onen azkenean ordaindu bear nituen berreun eta berrogei ta amar peseta, eta inñolaz ez neza-kean. Txit larriturik, arkitzen nitzan, nere eskuetara «La Croix» izena duen egunerokoa iritxi zanean, eta irakurri nuen Kujes'en jarri zala Beartsuen ogia deritzayon egintza.

Bereala eskatu nion Antonio santuari, bost peseta bere asmoarentzat esketiaz, laguntzen baziran; eta gero joan nitzan zornionaren etxera, zorra ordaintzeko luzabide bat eskatzera. Nik eskatzen niona auxe bakarra zan, eta askozaz geyago eskuratu det. Zor dizkidatzu berreun eta berrogei ta amar peseta esan zidan artzekodunak, ekatzu berrogei ta amar peseta, eta guzia ordaindua gelditzen da. Berreun peseta dira bada, Antonio santuak eman dizkidanak; eta orain, Apaiz jauna, pozez beterik

bialtzen diot Santuari es-
keñitakoa.

Gauz galduak.

Alde guzietan dei-
tzen zayo Antonio'ri
gauz galduak arki-
tzeko. Egite auctor
XIII'garren eunki-
tik, Prantzisko san-
tuaren bizibidean,
eta Ama Elizaren
otoitzetan ere aita-
tzen da. Santuaren
bizitzaren gertaera
batean dauka bere
asiera.

Jainko izti era-

kusten zuen Montpellier'ko konbentu edo bakartegi batean arkitzen zan bein Antonio. Egun batean min aundiz oartu zan berak bere eskuz idatzitako asko maite zuen liburu bat galdu zitza yola. Liburu au salmoaz itz egiten zuana zan, eta sermoi edo itzaldiak egiteko Antonio'k berekin ibiltzen zuen. Santuak liburu galdua arkitzeko Jainkoari

eskatu zion; eta bereala aurrean jarritzayon gazte bat oso lotsatuta, esanaz ostu egin ziola. Zergatik ezdakigula, gazte onek konbentutik aldegin zuen, bere irakaslearen liburua eramanez; bañan, leitze baten ertzerantz iritxi zanean, irten zitzayon irudipen edo ikusgai ikaragarri bat, esanaz leitzera botako zuela, ostutako liburu ura bereala

ematen ezpazion.

Askotan aitatu dira gai ontan Aita Nouet'en itzak: «Erri guziak beren bearretan Antonio'ri eskatzen diote batez ere gauz galduak arkitzeko. Egin zazute onela zerbait galtzean.»

Sales'ko Prantzisko Santuaren esaera alai bat degu, oituzion bati erantzunaz. «Egiaz, Jauna, egunero galtzen de-

gun gauz bat arkitzeko Santu oni eskeintz bat biok egin bear giñioke: zuk kristauaren garbitasuna, eta nik umiltasuna, askotan aztuta uzten dedan oitura ederra.»

Animaren laguntzak Santuari eskatzeko oitura txit ondo ikusi oi zuen Tours'eko Dupont'ek. Onek, Antonio'ren zale zintzoa izanik, esaten zuen eskatu zitezkeela Jain-

ko-laguntzaren ondasun ederrak, oyen galera munduko ondasunena baño mingarrigoa dalako.

Trakasbidea.

Ibillaldi luze bat egi-tera zijoan emakume batek, burnibideko txartela galdu zuen. Arkitzeko alegin guziak billa egin zitu-ten; bañan guziak alpe-rrik izan ziran. Orduan Antonio'ri eskatzen dea-darka asi zan; bañan an zijoan bidelari batek, au ezin eramanez par egin nayeon esan zion, «Anto-

nio santuak aingeruren bat bialduko dizu zure txartelarekin atera». Andik laister atean agertuzan trenzaitzallea galde-tuaz «¿zuetako norbaitek txartelik galdu al du? Estazio edo gelditoki bateko buruak bidean bat arkitu dutela esan dit.» «Jauna, esan zion orduan emakumeak lengo gizon arri: zu igarle bat zera noski: ondo agiri da Antonio santua asko ezagutzen dezula.»





Antonio Santua
ta Jesus Aurra

¿Nork ez du ikusi
Antonio Santuaren
irudi ederra, esku
batean lili bat eta
bestean Jesus-aurra
daukazkiala? Esan
diteke geyena ikus-
ten dan irudia au

dala, eta aditzera ematen du Santua-
ren bizitzaren gertaera miragarri bat.

Bein Txateau-neufeko jaun baten etxean zegoan, eta bestietatik urrutirtua zeukan bere gela edo bizitokia. Etxeko jaunak, andik igaro zan batean, ikusi zuen argi eder aundiz gela ura barrendik betea zegoela.

Alderatu zan geyago, obeto ikustea-

rren, eta orduan bere begietara agertu zan gauz arrigarri ta ikusgarri bat: Santuak bere besoe-tan aur txiki eder bat zeukan, eta onek egiten ziozkan Antonio'ri maite-maite goxoak, eta berak maitetasunez lantzantzen zuen. Etxeko jauna txit poztua aldendu zan, eta gertaera zabalduko zuen bereala Santuak bera il artera-ño isillik eukitzeko

eskatu ez ba-zion. Txate auneuf'eko jaunak bete zuen ala egiteko eman zion itza; bañan Santua il zala jakin bezin laister, biotza pozez beterik zabaldu zuen berak ikusitako gertaera arri-garri ura.

Irudigille kristauak geroztik askotan gertaera ura erakutsi dute Antonio esku batean Jesus-aurra ta bestean lili bat dauzkala ipiñiaz

Antonio Santuak
landatu dezala bere
liliya gure biotze-
tan, Jaungoikoa
bertan bizi dedin.

Irakasbidea.

Urrengo gertaera au
1830'garren urtean, Erró-
ma'n izan zan, eta Luigi
Lenti'k esaten digu ikusi
zuten batzuei berak entzun
ziela. Aur bat jostatzen
irugarren bizitza bateko
balkoi batean zebillela, ka-
le edo karrikara erori zan.
Bere amak erortzen ikusi
zuanean, oju egin zuen:
¡Antonio Santua! eta bere

semetxoa jasotzera kalera bereala joan zan. ¡Gauz arrigarria! Aurrak etzuen iñun miñik artu. ¡Nola izan diteke au? galdetzen zuen amak; eta semetxoak erantzun zion: praile bategen bere besoetan artu nau. Ama bereala oroitu zan lenago deitu zion Antonio santuaz, eta eramanzuen aurra *Ara cœli*'ko elizara bere zaintzalleari eskerrak ematera. An Antonio santuaren irudi baten aurrean asi zan umea ojuka: «ama, au da besoetan artu nauen prailea.»

Onen antzeko mirari asko esan ditezke, bada

ba-dirudi Santuak gorde-
tzen ditula aurrak, bere
besoetan daukan Jesus'en
antzekoak diralako.



ANTONIO SANTUA
ETA AMA BIRJIÑA



Etzion
Jesus'i
aurrak
baka-
rrik la-
gundu,
gañera
lagun-
du zion
berak
asko

maite zuan Ama
Birjiñak ere.

Antonio'k geyena
maite zuen kanta

Elizak Jaungoikoa-
ren Amari eskañi-
tako *Oh gloriosa do-
mina* zan: kanta au-
izan zan seaskan
lendabiziko ikasi-
zuenena, eta bera il-
dako oyea azkena
kantatu zuena.

Ama Birjiñak la-
guntzen zion bere
zaleari, edertasun
guzian askotan a-
gertuaz.

Bein Prantzia'n,
Tolosa'ko bakartegi
edo konbentuan ari-
zan irakurtzen Usu-


ard'en Santuen eriotzen edestiya. Irakurtzen zuen Ama Birjiñaren Igoerako misterioa, eta arkitzen zan buruzberatu ta illun irakurtzen jarraitu ezin zuelako, bakartegiko zer-egiañak beste toki batera deitzen ziotelako. Ama Birjiñak eman zion beta, eta agertu zitzaion aingeruak zerura igo zuten gorputz gloritsua erakutsiaz.

Beste batean min-
beratua eta biotz-
-illundua zegoela,
Ama Birjiñak ikus-
taldi bat egin zion.
Arrizulo batean ze-
goelarik, arkitu zan
bi esku inpernutar
batzuek ito nairik
lepotik eltzen zio-
te la. Antonio'k laister
ezagutu zuen bere
etsaya, ume zalarik
au agertu zitzayo-
lako, eta laguntza-
rako Ama Birjiñari
deitu zion. Maria'k
bere zalearen deya

zerutik entzun zuen ta laguntzera jetxi zan. Argi zerutar batez bete zan arri-zulo edo leitza, eta etsayak gure Santua pakean utzirik aldegin zuen.

Jarraitu dezayogun Santuari, eta Maria'k bear degun ainbat lagunduko digu.

ASTEARTEEN
ERASPEÑA.



Astear-
tea Pa-
dua'ko Anto-
nio santuari bera-
riaz eskeñia dago.

Asteartean lurperatua izan zan Santu au mirari aundita asko egiñaz. Paduarrak gordetzen zuten mirari oyen oroipena, eta egunontan Santuaren obira eskatzera joaten ziran.

1617'garren urtean mirari aundi bategen eraspen edo zaltetasan au geigozabaldu zuen. Bolognia'ko emakume bategen eskatzen zion esker bat Santuari,

eta au agertu zitza-
yon ametsetan esa-
naz Prantzisko San-
tuaren elizan dago-
en nere irudia be-
deratzi astearte ja-
rraituetan ikustera
zoaz, eta nai dezuna
iritxiko dezu. Ema-
kumeak gogoz agin-
dutakoa egin ondo-
ren, nai zuena esku-
ratu zuen.

Antonio santua-
ren astearteak, a-
mairutaraño igo di-
tu kristauen biyotz
onak, Garagarrilla-

ren amairuan, ger-
tatutako bere erio-
tzaren izenean.

Elizak oitura oni
eman dizka barka-
pen ugari, eta ze-
ruak bedeinkapen
asko.

ETSAIARI GOGOR EKITEKO

Padua'ko Antonio Santuaren

OTOITZA.

¡Ona emen Jaunaren
gurutzea!..

¡Zuek, nere etsai zerate-
nak, iges egin zazute!..

¡Judatar taldeko leoyak
etsaya garaitu du!..

¡Atsegiña, atsegiña, a-
tsegiña!..

Antonio Santua, inper-
nuaren garaitzallea, Jesu-
kristo eta sinismenaren
etsayak garaitu itzazu.

Ala izan bedi.

Paduatar Antonio Santu zorientsuaren

BEDERATZIURRENA

Bederatziurren au urtearen edozein garaitan egin diteke.

Ona izango da lendabizi pekatuak airtortzea, meza entzutea ta limosnen bat egitea.

Lendabiziko eguna.

EGUNEROKO OTOITZA.—Gurutze santuaren.....

Damu-egintza, 36'garren orrian.

Erantzunkaya, 40'garren orrian.

Maria'ren laguntzaz jayo eta berarizure garbitasuna bostgarren urtetik eskeñi ziozun zorioneko Antonio! zuk etsayari iges eragin

ziozun zure beatzak
arrian egin zuan
gurutzearen seña-
leaz. Iritxi zaiguzu
Ama oni naitasuna
eukitzea, eta etsaya
garaitzeko indarra.

Emen eskatuko zayo Antonio Santuari
bederatziurren ontan eskuratu nai dan la-
guntza edo eskerra, eta errezatuko diyo
Irukoitz txit Santuari, Aita gure bat, Agur
Mari eta Gloria Patri, eta egunero otoi
au azkenerako:

Azkenerako oloya.

Gure Jaunaren
antzera animen ze-
ruratzera bizi-
eman zenduen zo-
rioneko Santu glo-

ritsua; iritxi zaigu-
zu gure egunen az-
kenean Jesus eta
Maria ikustea, il zi-
ñanean zuk ikusi
zinduen bezela; eta
kanta ditzagula zu-
rekin zeruan betiko
bere edertasunak.
Ala izan bedi.

Bigarren eguna.

Gurutze santuaren.....

Damu-egintza, 36' garren orrian.

Erantzunkaya, 40' garren orrian.

Munduko zorake-
riai iges egiteaga-
tik, ondasunak eta

beste gauz guztiak
alde batera utzirik
Agustin santuaren
ordeneko praile sar-
tu ziñan Santu arri-
garria! iritxi zaigu-
zu munduko arro-
keriak oso uztea.

Emen eskatuko zayo Antonio santuari
bederatziurren ontan eskuratu nai dan
laguntza edo eskerra, eta errezatuko diyo
Irukoitz txit Santuari, Aita gure bat, Agur
Mari eta Gloria Patri, eta egunero otoi
au azkenerako.

Azkenerako otoyá, 161'garren orrian.

Jrugarren eguna.

Gurutze santuaren.....

Damu-egintza, 36'garren orrian.

Erantzunkaya, 40'garren orrian.

Martirioa irabazteko asmoan Aita Prantzisko Santuaren mendeko sartu zianan Santu ona; eskuratu zaiguzugure gorputza penitentziz minberatze-ko zaletasuna.

Emen eskatuko zayo Antonio santuari bederatziurren ontan eskuratu nai dan laguntza edo eskerra, eta errezatuko diyo Irukoitz txit Santuari, Aita gure bat, Agur Mari eta Gloria Patri, eta egunero otoi au azkenerako.

Azkenerako otoy, 161'garren orrian.

Laugarren eguna.

Gurutze santuaren.....

Damu-egintza, 36' garren orrian.

Erantzunkaya, 40' garren orrian.

**Jainkoak agertu
nai izan zinduenean
umiltasunez beterik
munduaren begie-
tatic ezkutatzeko ja-
kintsu ta santu bat
bezela ardura aun-
dia ipiñi zenduen
Santu maitea, onbi-
de eder au iritxi zai-
guzu.**

Emen eskatuko zayo Antonio Santuari bederatziurren ontan eskuratu nai dan laguntza edo eskerra, eta errezatuko diyo Irukoitz txit Santuari, Aita gure bat, Agur Mari eta Gloria Patri, eta egunero otoi au azkenerako.

Azkenerako otoy, 16l' garren orrian.

Bosgarren eguna.

Gurutze santuaren.....

Damu-egintza, 36'garren orrian.

Erantzunkaya, 40'garren orrian.

Jainkoaren itza
zabaltzeko beragan-
dik itzaren eta mi-
rarien on edo esker
ederra artu zenduen
Santu maitea: iritxi
zaiguzu zure itz
eder ori gogoz en-
tzutea.

Emen eskatuko zayo Antonio Santuari
bederatziurren ontan eskuratu nai dan
laguntza edo eskerra, eta errezatuko diyo
Irukoitz txit Santuari, Aita gure bat, Agur
Mari eta Gloria Patri, eta egunero otoi
au azkenerako.

Azkenerako oloya, 161'garren orrian.

Seigarren eguna.

Gurutze santuaren.....

Damu-egintza, 36'garren orrian.

Erantzunkaya, 40'garren orrian.

Zure besoetan Jesus-aurra maitetasun aundi batez iduki zenduen Santu maitagarria; iritxi zaiguzu bera bear dan bezela artzea.

Emen eskatuko zayo Antonio Santuari bederatziurren ontan eskuratu nai dan laguntza edo eskerra, eta errezatuko diyo Irukoitz txit Santuari, Aita gure bat, Agur Mari eta Gloria Patri, eta egunero otoi au azkenerako.

Azkenerako otoy, 161'garren orrian.

3azpigarren eguna.

Gurutze santuaren.....

Damu-egintza, 36'garren orrian.

Erantzunkaya, 40'garren orrian.

Elizaren etsayak
lotsatzeko abere ba-
ti adoratu eraziaz
Jainkoaren gorpu-
tza aldareetan ze-
goela argiro eraku-
tsi zenduen Santu
maitea: iritxi zaigu-
zu guk ere biotz-
-biotzez Sakramen-
tu orretan bera ado-
ratzea.

Emen eskatuko zayo Antonio Santuari
bederatziurren ontan eskuratu nai dan
laguntza edo eskerra, eta errezatuko diyo
Irukoitz txit Santuari, Aita gure bat, Agur
Mari eta Gloria Patri, eta egunero otoi
au azkenerako.

Azkenerako otoy, 161'garren orrian.

3ortzigarren eguna.

Gurutze santuaren.....

Damu-egintza, 36'garren orrian.

Erantzunkaya, 40'garren orrian.

Gizonak Jainkoaren itza entzun nai etzutelako, itsasoko arrayai itz egin zitezun Santu maitea: iritxi zaiguzu gure animak zeruko egia entzutera jarri ditezela.

Emen eskatuko zayo Antonio Santuari bederatziurren ontan eskuratu nai dan laguntza edo eskerra, eta errezatuko diyo Irukoitz txit Santuari, Aita gure bat, Agur Mari eta Gloria Patri, eta egunero otoi au azkenerako.

Azkenerako otoy, 161'garren orrian.

Bederatzigarren eguna.

Gurulze santuaren.....

Damu-egintza, 36'garren orriau.

Erantzunkaya, 40'garren orrian.

Zure zaleak zorigaitz eta eriotzatic ere gordetzen dituzun Santu maitea: gorde gaitzazu anima ta gorputzaren gaitzetatik, eta bateguz ere betiko eriotzatic.

Emen eskatuko zayo Antonio Santuari bederatziurren ontan eskuratu nai dan laguntza edo eskerra, eta errezatuko diyo Irukoitz txit Santuari, Aita gure bat, Agur Mari eta Gloria Patri, eta egunero otoi au azkenerako.

Azkenerako otoyau, 161'garren orrian.



MEZA SANTUA BEAR BEZELA
ENTZUTEKO BIDEA.

Apaiza aldarera dijoanean esan
ditekean otoa.

Adierazten du baratzako otoa.



Aitaren †
Semearen †
eta Espiritu
Santuaren
izenean †.
Alaxen.

Jesus nere
Jaun eta Jaungoi-

koa. Zuk eskatu zenuen Jetsemani'ko baratzean eskatuaz Betiko Aitari Pasioko neke-oñazeak al-bait zu samindu gabe igaro zitezela, bañan aren gogora jartzen ziñala esanaz. Baita ni ere, Jauna, neke guztiak gogo onez eramateko laguntza eskatze-ra natorkizu; eta iñolaz ez nuke nainere gogoa egiterik, baizikan zurea bakarrik. Egizu, lagun-

du dizadala nere
aingeru onak, eta ar
ezazu nere bitarte-
kotzat Padua'ko San-
tua, malkozko ibar
ontan gaudenentzat
onen laguntasuna
ain indar aundikoa
danezkeroz.

Eskeintza.

Nere Jaungoikoa! nik
eskatzen dizut Kristo Je-
sus'en ontasunagatik bar-
katzeko mundu ontan ne-
re bizitza gaiztoaz egin di-
tudan zorrak, alperrik zuk
esku zabalaz eman zizki-
dazun esker guztiak gal-

duaz. Eskeintzen dizut orain asten dan Jaunaren gorputz eta odolaren ixur-tze au, zure ontasuna zuk nai dezun bezela goratze-ko.

Eta zuk, Antonio Santu bedeinkatua, eskuratu zaidazu Jesus'gandik entzutea Jainkoak agintzen duen bezela, eta eska zayozkatzu neretzat ortarako bear ditudan esker eta laguntzak.



Aitorketan.

Adierazten du Kristo bere arpegiaren
gañean, odola ixuriaz erori zala.

Meza entzuten dagoanak esango du:

Ni pekataria...



Nastua ta
lotsatua ar-
kitzen naiz,
nere Jaun-
goikoa, zure
legesantuak
ausi dituda-

la ikusten detanean,
eta bear ziran eske-
rrak eman ez dizki-
tzudala zure lagun-

tza neurrigabekoa-
gatik. Jauna, bialdu
zaizkidazu neke ta
lanak, ala bear ba-
da, pekatuen barka-
penerako, naiz nere
aragiak ez nai artu.

Eraman zazu, Antonio
Santua, nere aitorpena
gure Egillearen esertokia-
ren aurrera, eta nere pe-
katu guzien barkapena
iritxi zaidazu.



Asieran.

Adierazten du Kristo Anas'en etxera
eraman zutela eta an masalleko
bat eman ziotela.



Eskatzen
dizut, Jesus
maitea, zuk
izan zendu-
en eraman-
kizunaren
antzeko bat,
nere buruaren gauz
okerrak eramateko,
eta urko lagunaren
gaizkiegiñak barka-
tzeko.

Antonio Santua, zure onbide aundiaren bidez egizu, Jaungoikoak ondo begiratu ditzala nere eskaerak. Alaxen.

Kirieleisonean.

Adierazten du, Kristo Kaifas'en etxera eramán zutela eta Pedro'k anukatu zuela.



J a u n a,
mundu on-
tan beti zu
maitatuaz
bizitzeko la-
guntza igu-
zu, gero be-
tiko zerua irabazte-
ko.

Itxedopen gozoen Santua, Antonio bedeinkatua, egizu itxedopenaren argi ongarria nigan ez dedilla itzali. Alaxen.

Gloria in excelsis'ean.

Adierazten ditu Jesus'en jayotza kantatzen zuten Aingeru ta Goyangeruak.



Kantatu
dezatela ne-
re Jaungoi-
koa, zure
aunditasu-
na zeruan
aingeruak;
eta mundu ontako
gizon guziak goratu

dezatela zure izen
santua.

Lagundu zaidazu nere
Santua, prantziskotarren
baratzako lorerik ederre-
na, nik ere goratu dezadan
nere Jaunaren izena, dauz-
kadan indar guziaz.



Epistolan.

Adierazten du Pilatos'engana Kristo eraman zutela.



Nai nuke,
nere Aita
eta Jaungoi-
koa, zorroz-
tu nere adi-
mena eta
berotu nere
biotz illa zure ikas-
lien erakusketak ja-
rraitzeko.

Iguzu, Antonio Santua-
ren bitartez, zure irakas-
bideak ondo ezagutu eta
maitatzeko laguntza. Ala-
xen.

Ebanjelioan.

Adierazten du Kristo Erodes'ek par egin ondoren, Pilatos'enera eramán zutela.



Iguzu Jau-
na, mendiak
ibiltzen di-
tuan sinis-
mena eta o-
nen aldeego-
teko bear-
dan biotza: eta orain
iñoiz baño geigo
Eliz Ama Santua
eta zure etsayen au-
rrean.

Au eskatzen dizut Pa-
dua'ko Antonio Santuaren
bidez. Alaxen.

Kredoan.

Adierazten ditu Ebanjelioaren
ondoren onak.

Meza entzuten daudenak esango dute,
Nik sinisten det...



**Nik sinis-
ten det Jaun-
goiko Aita,
Jaungoiko
Seme eta
Jaungoiko
Espiritu**

**Santuagan: iru per-
sona, baña egizko
Jaungoiko bat, gauz
on guzien emallea.**

Uste ontan nai nuke
beti bizi, eta nere uste au

bera zabalduaz nai nuke
il, nere anima, zuri, gauz
guztien egillea, ema-
nik; bada onela bizi izan
zan zure maitatzalle An-
tonio Santua. Alaxen.

Eskeintzan.

Adierazten du Jesukristo iltzera
eskeñi zala.



Aita zeru-
tar biotz-bi-
guña, ar za-
zu apaizak
eskeintzen
dizkitzun
osti garbi eta
osasunezko edontzi-

arekin batean, zuk
zuretzat egin zen-
duan nere biotza;
nik, zurea dalako,
gogoz ematen dizu-
dan au.

Nere eskeintza, Antonio,
beartsuen laguntzallea,
izango da Jaunarentzat
ederragoa, zuk nere ize-
nez eramaten ba-diozu.
Egin zayozu, ba-da, la-
guntz au, Jaunaren adiz-
kide izan nai lukean oni.
Alaxen.



Eskuak garbitzean.

Adierazten du Pilatos'ek eskuak
garbitu zituela.



Garbitu
nazazu, nere
Salbatzallea,
garbitu na-
zazu geigo
eta geigo ne-
re pekatu eta
oker guzietatik, eta
zuzendu itzazu nere
ibillerak ontasuna-
ren bide garbitik.

Antonio maitea: zu be-
zela, nai det bizi garbi,
eta okerrik gabe. Egizu

ala izan nadilla nere biziko
egun guzietan. Alaxen.

Orates frates eta bere ondoren.

Adierazten du Pilatos'ek erriari Kristo
erakutsirik esan zuela:

Ecce Homo. Ona emen gizona.



Eskatu za-
zu nere al-
dez, gure
Eroslearen
ama garbia;
eskatu zazu-
te nere aldez

zeruan arkitzen ze-
raten zoriondunak,
artarako garaya i-
risten danean, beti-

ko atsegiña irabazi
dezadan.

Eskatu zazu nere aldez
Jaungoikoaren adizkide
zeran Padua'ko Santua,
eta santuak eskatzen du-
ten bezela eskatzen era-
kutsi zaidazu. Alaxen.



Apaizak bizi diranen aldez eskatzen duenean.

Adierazten du Jesus iltzea erabaki zutela.

—



Oroi zaitte,
nere Jaun-
goikoa, nik
dauzkadan
bear guziaz,
nik baño o-
beto ezagu-
tzen dituzulako, eta
zure biotz on eta in-
darraren bidez zu-
zendu zaizkidazu.
Oroi zaitte, gañera,
ni bezela zure erru-

kitasunaren zai
dauden beste askoz.

Nik asko maite dituda-
nak Santu maitea, mundu
ontan ba-dira. Iritxi zaiz-
katzu oyei ere neretzat es-
katzen dizkitzudan onta-
sun eta laguntzak. Alaxen.



Ostia jasotzean.

Adierazten du Kristo gurutzean goratua
izan zala.



Orain egiz
eta benetan
nere aurre-
an zauden
betiko nere
Jaungoikoa!
Adoratzen
zaitut osti santu or-
tan, eta mundu gu-
ziak alaxen adora-
tzea nai nuke.

¡Gauz miragarrien San-
tua! Zuk eduki zendun

zure besöetan, mundu o-
netan bizi ziñala, nik gaur
emen adoratzen dedan
Jaungoiko ori. Orain ze-
ruan zaude zu aingerua-
kin batean, Bera bedein-
katuaz. Nik ere au iritxi
dezadan lagundu zadazu.
Alaxen.



Kaliza jasotzean.

Adierazten du Kristo'ren zaurietatik
ixuri zan odola.



Betiko bi-
zitza ematen
dezun eta o-
rain egiz eta
benetan ne-
re aurrean
zauden nere

Jaungoikoa! Adora-
tzen zaitut ontzi
santu ortan, eta nai
nuke mundu guziak
onelaxen adoratzea.

Antonio Santu maitea!
Esayozu Jaungoiko guziz
Amairu Astearteak (Gip). — 13.

altsuari ni ere bere semea
naizela, arkume garbia-
ren odolez erosia. Alaxen.

Apaizak ildakoen aldez eskatzen
dunean.

Adierazten du Kristo'k gu guzian aldez
eskatzen duela.



Begira za-
yezu, Jauna,
begi onez zu-
re maitatza-
lleizanziran
eta mundu
ontako bizi
laburra galdu zute-
nen animai, eta gaur
emen len egindako

oker eta pekatuakatik oñazez beterik garbitzen arkitzen diranai.

Il ziran, nere laguntzalle Antonio Santua, mundu ontan maite nitun asko. Zure laguntzaz bestean gorde itzazu; atera itzazu, purgatorioan arkitzen badi-ra, lenbailen betiko zoria iristeko. Alaxen.



Aita gurean.

Adierazten du Kristo'k gurutzean esan
zitian zazpi itzak.

Meza entzuten daudenak esango dute
Aita gurea...



¡Jaungoiko
errukitsua,
z e r u e t a n
z auden gure
Aita! lagun-
du zaidazu
zure izena
beti goratzeko, eta
zure gogoa zuzen
betetzeko.

Antonio Santua, ez de-
zula beñere utzi peka-

tari au: ez nazazula utzi
zori gaiztoan erortzen; gor-
de nazazu gaitz guztietatik,
eta batez ere inpernuko
oñazeetatik. Alaxen.

Ostia ebakitzean.

Adierazten du Kristo gurutzean il zala.



Linbo'ra
jetxiaz, urte
askotan zu-
re zai zeu-
den guraso
Santuak poz-
tu ziñituan.

Jesukristo Jauna:
poztu zazu nere
gogoa, zorian aye-

kin batean izateko.
Alaxen.

Linbo'ra jetxi zan Jesus,
an zeuden zintzoen ani-
mak ateratzera, bañan
lendabizi zerutik lurrera
jetxi zan, pekatariak sal-
batzeko. Zuk, nere San-
tua, egizu nik zerua ira-
baztea. Alaxen.



Agnus Dei esatean.

Adierazten du Kristo gurutziltzatu zute-
tenetatik asko, beren pekatuz
damutu zirala.



Nik eska-
tzen diot
Jaungoikoa-
ri nere peka-
tuen barka-
pena, eta nai
det aurre-
rontzean kalterik
geyago ez egitea.

Nere laguntzalle Anto-
nio Santua, esayozu au-
zeruko nere Aitari, seme
bat bezela bere etxean ar-
tu nazan. Alaxen.

Jauna artzean.

Adierazten du Kristo lurperatu zutela.



Ba - dakit,
Jauna, utsa
naizela ne-
regan zu ar-
tzeko; bañan
naizen be-
zela, zurea
naiz, Jauna, eta zu-
ri eskeintzen naitza-
zu. Nere Jesus atoz
nigana: Aita eta
Jaun bat bezela la-
gundu nai zaitut.

¡Antonio Santua! Aingeruen janaria nere animari emanaz eta onen betiko pakea itxedonaz, Aitaren etxean bizi nai det. Iritxi zaidazu Jesus'gandik esker eder au. Alaxen.



Apaizak bedeinkatzean.

Adierazten du Espiritu Santuaren
etorrera.



Etorri bi-
tez neregain
Jaungoikoa-
ren lagun-
tzak. Ekarri
zaizkidazu,
Antonio ne-
re laguntzallea; izan
zaite beti nere zu-
zendari eta irakasle,
eta egizu ez nadilla
aldendu Jaunaren
bidetik.

Azkeneko Ebanjelioan.

Adierazten du Kristo'ren Jainkotasun eta
gizatasun-misterioak.



¡Jesus ona!
Zure Jain-
kotasun-mis-
terioakatik
eskatzen di-
zut ez naza-
zula utzi, zu-
re laguntzaren bi-
dez betiko zoria iri-
txidezadan. Alaxen.

Mezaren eskeintza.

Artu zazu, Iru-
koitz edo Trinitade

guztiz Santua, Jesu-
kristo nere jaunaren
gorputz eta odolara-
ren eskeintz santu
au. Bere eriotzaren
oroipenean eskein-
tzen dizut nere pe-
katu guzien barka-
pen eta purgatorio-
ko animen zerura-
tzerako.

Ala izan dedilla.



Meza Santuaren
ondorengo eskaera edo otoya

Aita Santu XIII'garren Leon'ek aginduz
300 barkapen dauzkate.

*Errezatzen dira iru Agur Maria eta
Salbe bat.*

ESKAERA EDO OTOYA

Eskubide guziak
dauzkazun Jaungoi-
ko guziz altsu eta
gure zorion eta in-
darra: orain eska-
tzen dizun zure erri
oni arpegi onez be-
gira zayozu, eta
Ama Birjiña txit

garbi Jesus'en Ama bere senar Jose deuna, Pedro ta Pablo apostolo deunen eta Santu guzien bitartekotasunagatik entzun itzazu errukiz zure oñetan pekatarri guzien onbiurtzeta gure Eliz Ama Santuaren zorionerako egiten ditugun gure eskaerak. Kristo gure Jaunaren bidez. Ala izan dedilla.

Migel Santu goyaingerua, zaindu

gaitzazu, ta izan zaitte gure lagun etsayaren erasoan aurrean; menderatu dezala Jainkoak: auxeda guk eskatzen deguna: ta zuk, zerrutar gudarien burua, inpernuetara onda itzazu gure animen galeraren bila emen dabilzan Satanas eta bere lagun gaizkilleak. Ala izan dedilla.



GURUTZE-BIDE

edo Kalbario'ko jarduera santua

Gurutze santuaren...

Nere Jesukristo Jauna...

GOGAMENA

¡Gurutze bide on-
tan zabilzatenak!
begira zazute bide

au Jaungoikoak animai bialtzen dizkaten gurutzez betia dagoela, bañan alare ez zaitez tela ikaratu. Jesus'en oñazeak oroituaz bide oni jarraitu, eta betiko zerua iritxiko dezute. Ala izan dedilla.



LENBIZIKO GELDIALDIA



Jesus iltzea erabaki dute.

*℣. Kristo, maitatzen eta bedein-
katzen zaitugu.*

*℞. Zure gurutzearen bidez mun-
dua erosi zenduelako.*

**Eskatzen dizut,
nere Jauna, zure
ontasunaren izenez
bada berarekin egon
ziñan zutik burni ta**

katez beterik Epai-
learen aurrean, o-
nen epai gogorraren
zai. Iguzu laguntza
zure begien aurrean
bildur gabe egun
batean agertu, ta
zeruko atsegiñetan
arkitzea. Alaxen.

Gero esango dezu:— Jauna, Zuri
kalte egiña damu det; kupitu zaite
nitzaz eta pekatari guzietzaz. Be-
deinkatuak eta goratuak izan bitez
Jesukristo gure Jaunaren nekealdi
ta eriotza, eta gure Ama Andre
Maria txit Santuaren oñazeak.

Alaxen.

Aita gure, Agur Mari eta Gloria.

BIGARREN GELDIALDIA.



*Jesus'ek sorbaldagañean
gurutzea darama.*

Kristo, maitatzen...

Judarren gaizki
esanak eta Pilatos'
ek emandako guru-
tzea zure sorbalde-
tan artzeko eramán-
kizuna izanzenduen

Jesukristo nere Jauna: nere etsayen gaizki-esan eta egiñak ondo eramateko, ta oek gaitzez ez ordaintzeko indarra eman zaidazu. Alaxen.

Jauna, pekatu egin det.—Aita gurea, eta gañerakoak, lenbiziko geldialdian bezela.



IRUGARREN GELDIALDIA.



*Jesus lenbiziko aldiz lurrera
erortzen da.*

Kristo, maitatzen...

Jesukristo nere
Jauna, gurutzearen
egurtzarra zure sor-
balda minberatuen
gañean lurrera ero-
riaz, baña ostera

jekiaz, eramam zenuen bezela, nainuke nik ere munduko zorigaitz eta lanbide gogorren gurutzeara zure antzera alai eramam, gero betiko zorion zure gurutze santuaren zorion ederrak izateko. Alaxen.

Jauna, pekatu egin det.—Aita gurea eta gañerakoak, lenbiziko geldialdian bezela.



LAUGARREN GELDIALDIA.



*Jesus'ek bere Ama txit santua
arkitzen du.*

Kristo, maitatzen...

¡Amá maitea! gu-
rutze aztunaz zama-
tua ta burutik ixu-
ritzen zitzayon odo-
lez arpegia estalita
zure seme Jesus

ikusirik igaro zindu-
duen samintasuna-
gatik jarren! nere
pekatuai darraiten
gaitz guzia ezagu-
tzea iritxi zaidazu,
ori ezagutuaz ta bio-
tzez ziñez negar
egiñaz, arki nadin
noizbait Semearen
ta zure aldamenean
betiko zorian. Ala-
xen.

*Jauna, pekatu egin det.—Aita
gurea eta gañerakoak, lenbiziko
geldialdian bezela.*

BOSGARREN GELDIALDIA.



*Jesus'i gurutzea eramaten
laguntzen diote.*

Kristo, maitalzen...

Zure ikasbide eta
egipen onen bidez
gurutze aztuna era-
maten erakutsi zi-
ñiguzun Jesus mai-
tea: gurutzearen bi-

dea nekez bada ere
ondo jarraitzeko eta
gaurtik beste gauzik
ez goggratzeko la-
guntza iguzu. Ala-
xen.

*Jauna, pekatu egin det. — Aita gu-
rea eta gañerakoak, lenbiziko gel-
dialdian bezela.*



SEIGARREN GELDIALDIA.



*Beronika'k Jesus'i arpegia
garbitzen dio.*

Kristo, maitatzen...

Jesukristo nere
Jauna, zure biotz
ontanaitasunaundi
ta irazekiaren ize-
nean eskatzen dizut:
ezarri zaidazula ne-

re animaren barre-
nen zure arpegi
eder orren irudia,
zu beti maitatuaz
zoriona irabazteko.
Alaxen.

*Jauna, pekatu egin det.—Aita gu-
rea eta gañerakoak, lenbiziko gel-
dialdian bezela.*



ZAZPIGARREN GELDIALDIA.



*Jesus bigarren aldiz gurutzear-
ekin lurtean erortzen da.*

Kristo, maitatzen...

Jesus maitea, az-
kengabeko zure on-
tasunaren izenez
eskatzen dizut era-
man gaitzazula zo-
riko aingeru eta

Santuen aldamenera, eta zure gurutzearen aztuntasuna ezagunarazirik, argi dezazula nere adimena, oker ta pekatu guzien gaitza ezagutzeko, ta oetzaz egizko penitentzia egiteko. Alaxen.

Jauna, pekatu egin del.—Aita gurea eta gañerakoak, lenbiziko geldialdian bezela.

ZORTZIGARREN GELDIALDIA.



*Jerusalen'go alabai itz egiten
diote Jesus'ek.*

Kristo, maitatzen...

Kalbario'ko bide-
an naigabe ezin an-
diagoarekin zijoa-
zenean, nekealdiko
ikasbidea galdu e-
tzezaten, an irten

zitzaizkizun emakumeai nola ta zergatik negar egin erakutsi ziñien Jesukristo nere Jauna: zuzendu itzazu gure egipen guziak zure adizkidetasun eta zoriona iristeko.

Alaxen.

Jauna, pekatu egin det.—Aita gurea eta gañerakoak, lenbiziko geldialdian bezela.



BEDERATZIGARREN GELDIALDIA



Jesus gurutze santuarekin irugarren aldiz erortzen da.

Kristo, maitatzen...

Zure nekealdi eta eriotzaz arindurik gurutzearen aztun-tasuna, au eramangarri egin zenduen Jesus nere anima-

ren Eroslea! ipiñi
zazu gure biotzetan
gurutzeaganako za-
letasuna, beste gau-
zik ez maitatzeko
ezpada Zu, Jesus
gurutziltzatua, Aita
ta Espiritu Santua-
rekin bizi ta betikoz
agintzen dezuna.

Añaxen.

*Jauna, pekatu egin det.—Aita
gurea eta gañerakoak, lenbiziko
geldialdian bezela.*



AMARGARREN GELDIALDIA



Jesus'i soñekoak kentzen dizkate

Kristo, maitatzen...

Jesukristo gure
Jauna, gurutzean
artu zenduen oña-
zeagatik, eta beazu-
neznastutako ardoa
ematean eramán-

-arazi zizutenagatik,
argitu gaitzazu zure
laguntzaren bidez;
eta gurutzean arki-
tzen diran ondasu-
nak ezagutuaz, ta
beti bide zuzen au-
jarraituaz, irabazi
dezagula betiko zo-
riona. Alaxen.

*Jauna, pekatu egin del.—Aita gu-
rea eta gañerakoak, lenbiziko gel-
dialdian bezela.*

AMAIKAGARREN GELDIALDIA.



Jesus gurutziltzalua da.

Kristo, maitalzen...

Gurutzean zintzilik zure ezur guzikan zenbatetu zitezkeela, oñaze gogorraz ainbeste eramazenduen Jesus nere

maitea: egizu nere gorputz eta anima-
ren indar eta onbi-
de guziak zure go-
rapenerako izan di-
tezela; eta iltze go-
gorrez nere naita-
sunez josia izan zi-
ñanezkero, josi na-
zazu zure laguntza
santuan, gero zure-
kin zeruan izateko.
Alaxen.

*Jauna, pekatu egin det. — Aita gu-
rea eta gañerakoak, lenbiziko gel-
dialdian bezela.*

AMABIGARREN GELDIALDIA.



Jesus gurutzean iltzen da.

Kristo, maitatzen...

Jesukristo nere
Jauna, zu igo zihan
gurutzera zeru-lurr-
etako ondasun gu-
ziak neri eman, ta
gizonen biotzak ze-

reganatzeko. Era-
man zazu bada ne-
re biotza zure ondo-
ren; eta egizu zu
besterik maitatu ez
dezala, mundua be-
re arrokeri ta zora-
keriakin gorrota-
tuaz, onela betiko
zoriona iristeko.

Alaxen.

*Jauna, pekatu egin det.—Aita
gurea eta gañerakoak, lenbiziko
geldialdian bezela.*



AMAIRUGARREN GELDIALDIA.



Jesus'en gorputz illa bere Amaren besoetan dago.

Kristo, maitatzen...

Oñazez betetako
Ama Birjiña! ikusi
nai izan zendun
jeisten gurutzetik
zure seme Jesus'en
gorputz illa odolez

itsusitua, burutik
oñetara zauri bat
egiñik, ikusketa min-
garri onek zure bio-
tzaren pena guziak
berritzen zituela:
egizu, nere Ama,
emendik aurrera
beti pentsatu deza-
dala Jesukristo'gan.
Alaxen.

*Jauna, pekatu egin det.—Aita gu-
rea eta gañerakoak, lenbiziko gel-
dialdian bezela.*



AMALAU GARREN GELDIALDIA.



*Jesus'en gorputz illa lurperatzen
dute.*

Kristo, maitatzen...

Ama biotz bigu-
ña! itsasoa bezin
aundia zan zure bio-
tzaren naigabea zu-
re seme maite Je-
sus'en gorputz illa

obian sartzen ikusi
zenduenean! ¡Nai-
gabebetutako Ama!
¿Nork poztuko du
zure biotz illundua,
ta nork arinduko
ditu zure naigabeak,
mundu ontan ez ba-
-dago inor ere Je-
sus'en eriotzan kul-
pik izan ez zuenik?
Urtu dedilla nere
biotza negar-malko
miñetan, egin ditun
gaizta keriakgatik;
eta bizitz ontan izan
zinduen oñazeak be-
ti gogoan edukiaz,

iritxi dezadala zure
aldamenean betiko
zorionean gero ego-
tea. Alaxen.

*Jauna, pekatu egin det.—Aita
gurea eta gañerakoak, lenbiziko
geldialdian bezela.*





Aitorketa ondo egin
eta Jauna ondo artzeko bidea.

Pekatuengogoratzea.

OTOYA.

Nere Jaun eta
Jaungoikoa: Aitor-
keta on bat egiteko
asmoan nator. Zure
ordez lurrean da-
goen apaizari, nere
barren guzia agertu
nai nioke, bañan
onetarako bear det
nere pekatuak eza-

gutzeko argia, oyek gogoratzea, ezaguerara, eta guziak diranak diran bezela agertzeko asmo sendoa. Argitu zaidazu bada, zeruko argiz nere adimena, nere pekatuak ondo eza gutu ditzadan, guziak apaizari damutasunik aundienaz, eta bizi gorrotatuaz, aitortu ta agertzeko.

Pekatarien ama errukitsu Maria. ¡Erruki zaite nitzaz,

ta lagundu zaidazu
bear dedan lagun-
tza iristen!

Nere Aingeru be-
tiko lagun ta zai-
tzallea: lagun zaida-
zu nere gaiztakeriak
gogoratzen, aitor-
pen on baten bitar-
tez Jaunaren lagun-
tza betiko neregan-
du dezadan.

Aita gurea eta Agur Maria.



Begira orain.

Zenbat egun edo aste da aitorketa egin zenduela? Utzi al zenduen pekatu larriren bat esan gabe lotsaz, gaizta-keriz, edo aztuta?

Bete al zenduan penitentzia?

Lenengo aginduan.

Bai al dakizu salbatzeko jakin bear dan ainbat dotriña? Arkitu al zera Sinis-meneko gaien bat

sinisten ez dezula?
Kezkik gai ontan
izan al dezu? Itz
egin al dezu iñoiz
erreligioaren kaltez?
Liburu txarren bat
eduki al dezu, edo
iñori eman, edo ira-
kurtzen aditu? Zor-
ginkerietan sinisten
ote dezu? Zu salba-
tzeko asmoak galdu
al dituzu edo gai
ontan osoro utzirik
bizi izan al zera, ba-
karrik Jaungoikoa-
ren ontasunean zu-
re ustea jarririk, ze-

dorrek ezer egin gabe? Egon al zera luzaroan ezer erreztatu gabe, edo Sinismen, Itxadopen eta Maitetasunezko egiutzik egin gabe?

Bigarren aginduan.

Juramenturik gezurraren gañan, edo zalantzan, egin al dezu? Egiaarekin juramentu egin dezu-nean, bear zala egin ote dezu? Jaungoikoaren edo santuen izenik aotan artu al

dezu madarikatze-
ko? Zenbat aldiz?
Eskeintzen bat egin
ta bete gabe luza-
roan egon al zera?

Irugarren agindua.

Mezik entzun ga-
be zure kulpaz jayen
batean gelditu al
zera? Besteri gale-
razi ote diozu en-
tzutea? Meza-bitar-
tean izketan egon al
zera, eta bazterre-
tara begira? Elizan
Santuen irudiyai ta
elizako gauzai zor

zayen begirapena beti ekarri izan al diezu? Bijili egunetan aragirik jan al dezu? Nastu al dezu jatorduen batean aragi ta arrairik barau egunez? Bulda santua artu al dezu?

Laugarren agindua.

Zure gurasoai, apaizai, edo nagusia-goai begirapenik galdu al diezu? Bearrean arkitu diranean zuze gurasoai lagundu? Ez al de-

zu egin zerbait agin-
du izan dizutenean?
Egin al dituzu bere
azkennayak? Mira-
bea ba-zera, jakin
zazu nagusi-etxe-
koandreak daukatz-
kitzula gurasoen or-
dez bezela. Gurasoa
ba-zera, semeai do-
triña erakusten al
diezu? Oitzen al di-
tuzu goiz ta gabe-
tan, baita ere jate-
rakoan, errezatzen?
Illuntzean etxera-
tzen al dituzu? Ga-
betan etxetik atera-

tzen al dira? Egunez nundik nora dabil-tzan zaitzen al dituzu? Bai al dakizu kastigatzen bear dutenian? Umeai beze-la mirabeai begira-tzen al diezu? Erro-sario santua etxean errezatzen al dezu-te?

Bosgarren agindua.

Iñorekin asarre-rik izan al dezu? Go-rrotorik iñori eduki al diozu? Iñor il, zauritu, edo jo al

dezu? Iltzerik edo beste gaitz aundirik ñori opa izan al diozu? Kalterik egin? Ñori egiteko agindu? Besteren gaitzez poztu, edo onaz tristetu al zera? Amaren sabelean dagoan aurra galtzeko ezer egin al dezu? Jan-edan geyegizkorik?

Seigarren aginduan.

Zure buruarekin edo besterekin aragizko pekatutan e-

rori al zera? Zure pekatuko lagun ura ote zan senide, aide, edo ezkondua? Asmo ta gogoratze loyai tokirik eman al diezu? Itz loyak esan, edo gogoz aditu al dituzu? Dantza nastuetan ibilli al zera? Eta gabez bide gaiztoetan? Ikusi itzazu emen ondo, nolakoak izan diran zure jolas, egite, begirune ta kantuak. Begira gañera liburu edo irudi nazka-

garririk ote dezun.

Zazpigarren agindua.

**Ezer ostu al dezu?
Bestek osturik gor-
deal dezu? Ostutzen
iñori lagundu al dio-
zu? Ostutzerik nor-
baiti agindu al dio-
zu? Saldu-erosietan,
artu-emanetan edo
jokoan ez bearrik e-
gin al dezu? Zorrik
ukatu edo ordaindu
alzenekeala, ordain-
du gabe eduki al
dezu? Gauzaren**

balio baño geyago
iñori kendu al dio-
zu, edo egin bear
dezun lana egin ga-
be gelditu al zera?
Arkitu izan dezun
gauza jabeari biur-
tzeko alegiña egin
al dezu? Eskubide
gabe auzirik iñori
eman al diozu?

Zortzigarren aginduan.

Iñoren uste txa-
rrik, artarako bide-
rik gabe, artu al de-
zu? Besteren utsegi-
terik esan edo gogoz

aditu, edo galerazi zentzakeala egin ga-be utzi al dezu? Ge-zurrez iñori izen onik galdu al diozu? Oituraz gezurrik e-saten al dezu, ta ba-tez ere kalte andien bat egin dezakeanik? Etxeetako pakerik esamesen bidez gal-du al dezu?

(Bederatzigarren agindua seiga-rrenian sartzen da ta amargarrena zazpigarrenian.)



Pekatuak gogoratu ondorengo eta
aitorketa-aurreko otoya.

¡Jesus nere salbatzalle maitea! Ezagutzen det nere pekatuak berritu dizutela sarritan zure neke-aldi santua eta ortan irabazi izan dedala inpernua; baña zure ontasunak deitu eta eman dit beta ta laguntza, atzera zure adizkidetasun santura biurtzeko. Zer emango dizut nik,

ontasun berdingabe
oni erantzuteko?
Besterikan ezer ez,
nere damutasunez-
ko negar malkoak
baizik. Artu zaizki-
datzu ontzat, Mag-
dalena'renak beze-
la, begiratu gabe
nere pekatu asko eta
aundiak, baizik zuk
nigatik ixuri zen-
duan odol ain ede-
rra. Nik, nerez bar-
katzetik irabazi ez
dedala ba-dakit, ba-
ña baita ere ba-da-
kit zure odolaren

tanto bakar bat asko
dala nere ta mundu
guziaren pekatuak
barkatzeko, eta ne-
retzat zorionik aun-
diena eta bide batez
zuretzat pozaldirik
onena dala, ni zu-
gana osoro biurtzia.
Ona bada emen non
natorren zure or-
dezkoaren oñetara,
nere pekatuak go-
rrotatuaz, aurrera-
koan ezergatik ere
geyago ez egiteko
asmoan, eta guzien
barkapena eta zure

laguntza iristeko
uste osoan.

Esan ezazu *Ni pekatariya*, zoaz
apaizaren oñetara eta esan itzazu
zure pekatuak onela:

Nere Aita, onen-
beste egun edo aste
da aitorpena egin
nuala. Penitentzia
bete nuen (edo ez
nuen bete) pekatuen
gogoratzea egin det:
Azkeneko aitorke-
tan ez nuen pekatu-
rik aitortu gabe utzi
(edo utzi nuen one-
lako edo alako peka-
tu, lotsaz, aztuta edo

gaiztakeriz edo beste zerbaitegatik.) Andik onerañokoak orain esango dizkat. Lenbiziko aginduan onelako edo alako pekatu egin det. Bigarrenian onelako edo alako, onenbeste edo ainbeste aldiz (eta onela beste agindu guzietan ere, arkitu dezun guzia esango dezu, eta guzien buruan esango dezu.) Orain eskatzen diot Jaungoikoari barkatzea, eta

berorri absoluzio
santua.

(Aditu itzazu on-
do apaizaren ondo
esanak; absoluzio
santua artu eta bete,
al badezu, bereala
penitentzia.)

Aitorkeia ondorengo oioya.

¡Nere Jauna! ni-
tzaz izan dezun err-
ukia beti eskertuko
dizut, pekatu guziak
barkatu, ta betiko
eriotzatik gordetzen
nazulako. Nere ani-
mak orain ta beti

bedeinkatuko zaitu,
eta egin diozkazun
laguntzak iñoiz ez
zaizka aztuko ¿Ez al
det zure nayera lo-
tua egon bear, nitzaz
izan dezun errukia-
ren ondoren? Bera-
gatik nere animaren
Salbatzallea! eskeñi
det, zure laguntzaz,
zure aginduak bear
bezela betetzea. Eza-
rri ezazu zure bil-
durra nere biotzean
aginduen bidetik ja-
rraitzeko, nere itxa-
ropen osoa zure go-

goan jarriaz zurekin
batean joatea on
zaitelako. Egizu ez
nadilla zugandik al-
dendu, Jauna, eta
zuzendu nazazu, bi-
de on eta zuzenetik
ibilli, ta egunen ba-
tean zure etxeko
ontasunak iristeko.
Iritxi zaidazu, nere
Jauna, esker au; ez
dizadazula ukatu,
beren ustea zugar
jartzen dutenak zuk
salbatzen dituzu eta.

JAUN-ARTZE AURRERAKO

Jaungoiko gure Jaunari oloya.

¡Jaungoiko biotz biguña! ¡Nik ba'nu zutzaz, eskatzen didazun guzia neri emateko, zuk neretzat daukazun naitasuna! Zuk eman didazu, zure naitasunaren bidez, zorion aundi bat, eta bera da zure Semea: au artzera nator, gero nere biotzaren maitetasun guziz zuri eskeintzeko, onela

zure naitasuna eta
nere esker ona ber-
dintzeko bidea arki-
tuaz inere Jaungoi-
koa! egizu sar-dedi-
lla beregan nere
anima geyago zuri
bidegabekeririk ez
egiteko.

Jesukristo gure Jaunari oloya.

Nere animaren
salbatzallea, gogo
aundiz nai zaitut
artu nere barrenen,
argal ta gaiztoa ba-
-naiz ere. Beragatik
garbitu zazu bizi-

tzera zatozen toki
au, eta kendu itzazu
bertatik zure begiak
igui dituzten gau-
zak, eta onela garbi
geldituaz eta zure
laguntzaz gero ta
geyago zabalduaz,
zure naitasunaren
aunditasuna obeto-
ago artuko du.

Espiritu Santuari oloya.

Jaungoiko Semea
bere barrenen ara-
gizjazteko Ama Bir-
jiñaren gorputz eta
anima bear zan be-

zela ipiñi zenduena:
atoz, sar-zaitte nere
barrenen, eta ipiñi
itzazu nere gorputz
eta anima Jaungoi-
ko gizon egiña ar-
tzeko.

Apaiza etortzen danean Jaun-artzera
dijoanaren aurrera Kopoi ta Ostiarekin,
au jasoaz esaten du: *Ecce Agnus Dei,*
ecce qui tollit peccata mundi; eta orrek
esan nai du *Ona non dezuten Jaunaren*
bildotxa, auxe da munduko pekatuak
kentzen dituen. Orduan esango du Jaun-
artzera dijoanak:

Osti bedeinkatua, aingeruen
janaria! adoratzen zaitut biotz
guziz; adoratzen zaitut nere
Jaungoiko ta Salbatzallea; si-
nisten eta uste det, nere biotza
sendatuko dala ta zure lagun-
tzaren bidez obetuko naizela.

Gero esango du biotz-biotzez:

Nere Jesukristo Jauna, ez naiz ni, zu nere etxe argalean sartzeko gai: baña zure itz guztiz santuaren bidez nere pekatuak izan bitez barkatuak, eta nere anima sendatua ta salbatua. (*Au esango du iru bider apaizarekin batean*).

Jauna artzean, aoz ez, baizik biotzez bakarrik, esango du:

Jesukristo nere Jaunaren gorputzak nere anima zaindu eta eraman dezala betiko bizitokira. Ala izan dedilla.

Jaun-artze ondorengo

OTOYA.

Kristo'ren anima guziz santua, santu egin nazazu: Jesu-

kristo nere Jauna-
ren gorputza, salba
nazazu: Kristo'ren
odol garbia, ase na-
zazu: Kristo'ren sa-
yetseko ur garbia,
garbi nazazu: Kris-
to'ren arpegiko izer-
di ongarria, senda
nazazu: Kristo'ren
neke-aldierrukarria
indartu nazazu. Je-
sus ona! zaindu na-
zazu: zure zaurien
barrenen ezkutatu
nazazu: ez dizadazu-
la utzi zugandik al-
dentzen: nere erio-

tzaren garayan nere
aldez egizu; lagundu
zaidazu, Jauna, zu-
gana joaten; eta ipi-
ñi nazazu zure al-
damenean, aingeru,
goyangeru ta santu
guziakin zu beti or
goyen goratzeko.
Alaxen.

Jaun-artzearen

ondorengo eskerrak emateko Tomas
Santu erakuslearen otoya.

¡Jaungoiko gure
Jauna! Eskerrak,
Jauna, janaritzat
zure seme bakar Je-

sukristo gure jabearen gorputz eta odol garbia eman dizkidazulako; eta au guttia, ez esker oyen gai arkitu nazulako, baizikan zure errukitasun azkengabeagatik, pekatu ta bigabekeri asko egin dizkitzut-eta. Eskatzen dizut Jaun-artze onek lagundu dizadala zure aserrea itzaliz, nere pekatuen barkapena iristeko; sinismen bizia iristeko; sinis-

men onen bidez, Zure babesean nabillela, nere asmo gaiztoak uzteko; nere gaiztakeriak ezerezteko nere kupitasun, eramankizun, ixiltasun eta beste onbide guziak geitzeko; nere etsayen eraso gogorren aurrean lagun izateko, Zurekin betiko bat egin nazan, inere Jaungoikoa! eta azkenik zeruratzeko egipen ederra azkentzeko. Baita ere eskatzen

dizut mundu ontan
zure mayean artu
nazun bezela, zure
maiteentzat beste
munduan daukazun
mai artara artu na-
zazula; an Seme eta
Espiritu Santuare-
kin egizko argia a-
tsegin osoa eta be-
tiko zoriona zuzera-
lako. Alaxen.





JESUS'EN BIOTZARI

zñez nai dion biotz baten jarduera.

Jesus nere maitearen biotza, onbide guzien egon tokia, esker guzien iturri azkengabea, zer arkitu dezun neregan, ni orrenbeste maiteizateko? Nigana agertu dezun naitasunak sinistarazten dit nere maitetasu-

nak ondo artuko dituzula. Artu zazu, nere Salbatzallea, zure biotzari eskeintzeko daukadan gogo bizia. Nik eskeintzen dizut nere biotza berak dauzkan asmo guziakin, eta oek zureen antzekoak izatea nai det. Emen nago, zure biotz maitagarriari osotoro emanik; guzia zurea naiz. Aundia da neretzat daukazun errukitasuna, ta nere biotzaren

eskeintza ontzat artzen dezu! Emendik aurrera biotz au zurea izango da, eta munduko gauzai tokirik emango ez dio. Zure biotzari egiten diodan eskeintz au, bere naitasuna nere esker-gaiztoz oraindaño egin dizkadan bidegabekeriak estaltzeko da. Nere eskeintza laburra da, bañan nik eman nezakean ta berak eskatzen duen guzia

ematen diot, eta au
ematen diot beñere
berriro ez kentzeko
asmoan.

Maitetasunezko egiñza.

Nere maitetasun
bakarraren naitasu-
nezko biotza! nere
gogoak nai duen be-
zin ondo ezin zu
maitatuaz, zeru-lu-
rrari deitzen diotet
nere ordeztan nik ezin
dedana egiteko. Ni
aingeruakin bat
egiñik, zu geyago
maitatzen egiñalak

egingo ditut, naitasunez irazekitako biotza! zergatik guziak zuganako naitasunez beteta arkitzen ez dira? biotz maitea! atoz neregana, eta zure garbizien artean eze-reztu nazazu, aye-tan iltzen diranai biziera ematen badakizu-ta.





GURE AMA BIRJIÑAREN
ABESTIAK.

Lukas Santua, I.

Magnificat anima mea.

I. Nere gogoak
Jauna goratzen du.

II. Eta nere gogoak
Jauna nere jabea-
rengan atsegin izan
zuan.

III. Bere mirabe
onen txikitasuna
begiratu zualako, ta

oraindik bedeinkatua esango dirate gizaldi guziak.

IV. Gauza aundiyak egin dizkidalako altsua danak eta Santu bere izena.

V. Eta bere errukia gizaldirik gizaldi, berari beldur dutenen gañean.

VI. Al erakuspena egin zuan bere besoaz: arroak ixurizituan beren biotza-
ren asmotik.

VII. Altsuak beren tokitik kendu zi-

tuen, eta goratu zituan txikiak.

VIII. Gosetiak ondasunez bete zituan, eta aberatsak utsituta utzi zituan.

IX. Israel, bere erria, artu zuan, bere errukia oroiturik.

X. Berak itz egin zuan bezela gure asabai, Abraham'i ta bere ondorengoai edonoiz.

Aitari, eta Semeari, eta Espiritu Santuari lenendik zan bezela orain eta be-

tikotasun guzian zoria. Alaxen,

Padua'ko Antonio Santuaren
POZAK.

—
Zure laguntzak nor zeran argi asko esaten digutenezkero, Antonio ona, pekatarien aldez Jaunaren aurrean eskatu.

OTOYA.

—
Nere Jaungoiko ta nere Jabea, poztu bedi zure Eliza Antonio santuaren bitartekotasunez, beti bere laguntzak indartu dezan, eta betiko pozak iristea irabazi dezan. Jesukristo gure Jaunaren ontasunagatik. Ala izan dedilla.

Aita gurea eta Agur Maria.

Bulda Santuaren Barkapena &
irabazteko bost aldareen ikustaldia

1. Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Alaxen.

LENENGO ALDAREA.

*Emen eskatuko da Elizaren
bearren aldez.*

Gure Jainko ta er-
rukizko Aita, alda-
re ontan goratzen
ditugun santuen bi-
tartez, biotzez eska-
tzen dizugu Jesu-
kristo'ren ordañez-
ko dan Erroma'ko
Aita Santuaren al-
dez, bere asmo san-

tuak iritxi ditzan: eta Apostoloen tokian dauden Gotzaita apaiz guzien alde; sinismena gero ta geyago zabaldu dedin: sinismengabeen erakuste gaiztoak ezereztu ditezten: pekatariak onbiurtu, eta onak onbidean iraun dezaten: eta agintari katolikoan artean pakea izan dedin. Jesukristo gure Jau-nagatik. Ala izan dedilla.

Aita gure, Agur Mari ta Glori bat.

2. . Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Alaxen.

BIGARREN ALDAREA.

*Emen eskatuko da Euzkel-
-erriaren alde.*

Gure Jainko eta
errukizko Aita: alda-
re ontan goratzen
ditugun Santuen
bitartez, biotzez es-
katen dizugu, gure
erri maitea len be-
zela arkitu dedin;
bere oitura garbiak
guziai pozez eraku-
tsiaz, bere zuzenta-
suna nunai ager-

tuaz, guzien biotze-
tan sinismenaren
su gartsua sendo ar-
kituaz, jarren! Jau-
na, zigorrez jo gure
pekatuak bearduten
bezela; baizik, erru-
kiz barkaturik, eman
zayozu Euzkel-erri-
ari pake eta zorio-
na. Jesukristo gure
Jaunagatik. Ala
izan dedilla.

Aita gure, Agur Mari ta Glori bat.



3. Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Alaxen.

IRUGARREN ALDAREA.

*Emen eskatuko da ongille ta
gaizkilleen aldez.*

Gure Jainko ta er-
rukizko Aita: alda-
re ontan goratzen
ditugun Santuen bi-
tartez, biotzez eska-
tzen dizugu lurreko
eta zeruko ondasu-
nez ordaindu diza-
yezula guri ongi nai
diguten guziaz; bai-
ta ainbeste laguntza
guri egin izan diz-

kiguten guraso, aizde ta adizkide guziai. Eta Jesus onak bere iltzalleai Gurtzegañetik barkatu zien bezela gaizkilleai barkatuaz, eskatzen dizugu biotz gogorrak bigundu eta ezaguera ta onbidean jarri ditezela. Jesukristo gure Jaunagatik. Ala izan dedilla.

Aila gure, Agur Mari ta Glori bat.



4. Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Alaxen.

LAUGARREN ALDAREA.

*Emen eskatuko da purgatorio-
ko animen aldez.*

Gure Jainko ta er-
rukizko Aita: alda-
re ontan goratzen
ditugun santuen bi-
tarte, biotzez eska-
tzen dizugu, purga-
torioko anima ga-
xoen alde, batez
ere an arkitu ditez-
kean gure guraso,
aide ta ongilleen al-
dez; gu bide izan

giñalako an dauden
nen alde; eta nork
lagundurik ez duten
anima bakar erru-
karri aen alde. Je-
sus maitearen odol
ederra bitarteko da-
la, jarren! Jauna,
atera itzatzu lenbai-
len anima gaxoak
oñaze izugarri ae-
tatik, eta eman za-
yezu zeruan beti be-
tiko atsedeen eta zo-
riona. Jesukristo
gure Jaunagatik.
Ala izan dedilla.

Aita gure, Agur Mari ta Glori bat.

5. Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Alaxen.

BOSGARREN ALDAREA

*Emen eskatuko du nork bere
bearren aldez.*

Gure Jainko eta
errukizko Aita: al-
dare ontan goratzen
ditugun santuen bi-
tartez, biotzez eska-
tzen dizugu, zu gora-
tzera etorri geranoi
eman zaizkiguzula
anima ta gorputze-
rako bear ditugun
onbide ta laguntzak;
eta batez ere, ez di-

zaguzula ukatu gure
griña gaiztoak ezi,
ta birtutean aurre-
ratzeko laguntza,
eriotzako garaya
baño len pekatuen
zorra ordaindu de-
zagun; zure gogo
santua egiteko poz
eta indarra ta gure
eginkizun guziak be-
tetzeko osasuna ta
pakea. Eman zaizki-
guzu gañera zeruko
laguntzarekin ba-
tean lurreko onta-
sunak, zu lagundu
ta zu gauz guzien

gañean malkozko er-
beste ontan maita-
tuaz, iritxi dezagun
gero eriotz on ta
santu baten ondo-
ren zure arpegi ede-
rra zeruan ikustea:
aingeru ta santu
guziakin antxe beti-
kotasun guzian go-
ratu zaitzagun. Je-
sukristo gure Jau-
nagatik. Ala izan
dedilla.

Aita gure, Agur Mari ta Glori bat.



Salomonen esaerak,
Eskritura Sagradutik atereak.

1. Gazteak aurtasunean artzen duen bidetik jarr-aituko du zartzaroan ere.¹

2. Jainkoaren bildurra da jakinduriaren asiera. Sentsu gabeak ez dute on-tzat artzen jakinduria eta Erljioaren ikasbidea.

3. Jakinduriak pitxi eder guziak baño geyago balio du, eta opa litezkean gau-zetan eztago ezer beraren parekorik.

4. Seme jakintsua da ai-taren atsegiña: ez jakiña

(1) Asiera txarrak bukaera txarra. Ona emen lege bat Jainkoaren eskerrak ez kentzera, beti betetzen dana.

amaren atsekabea dan bezela.

5. Ez dio ongi nai bere Semeari zigorkada urritzen dionak, maite duenak ordea, maiz leziazten du.

6. Izan zaitez ikasbide zalea, ez utzi beñere, ondo gorde; bada bera da zure bizitza.

7. Erakusbide latza maite duenak, maite du jakinduria, baña ondoesanak gorrotatzen dituenak, sentsugabea da.

8. Bere ikasbideetatik gizona ezaguerazoko da; baña arroa eta buru gabea gaizki ikusia izango da.

9. Zoria izango da jakintsuen senipartea, baña ezjakiñai lotsagorrian biurtuko zaye beren igoe-ra.

10. Ikasbidea gorrotatzen duenak, gorrotatzen du bere anima, baña bes-teen ondo esanetara menderatzen dana egiten da bere biotzaren jabe, *edo menderatzen ditu bere oitura txarrak.*

11. Ondoesanetatik igesi dabillenenak iritxiko ditu zoritxarrak; baña ondo esanak aditzen baditu, izango da zorionez betea.

12. Ondo esana ontzat artzen duena, bizitzako bi-

detik dijoa, baña artzaz jaramonik egiten ez duena, bide txarretik dabil.

13. Ikasi nai ez dutenak, ilko dira beren ezjakiñean.

14. Seme sentsugabea da aitaren naigabea.

15. Nagitasunak loa erakartzen du, eta anima alperak gosea igaroko du.

16. Gizon pizkor eta arretazkoaren gogamenak beti ekartzen dute ugaritasuna; baña alper guziak beti zoritxarrez bizi dira.

17. Egikunde atsegiñezkoa duena, izango da senidea baño maitatuagoa.

18. Arroa eta aundius-tekoa da txaldan egizkoa;

bada aserre bizian egiten ditu milla erokeri.

19. Izen onak ondasun asko baño geyago balio du; gizon ontzat idukitzea, urre-zillararak baño maitatuagoa da.

20. Errukitsua dana, goratua izango da, bere ogia beartsuari ematen dielako.

21. Etzaitez zaletu gaiztoen bideetara, eta atsegiñik artu ere aen bide txarrai.

22. *Billera txarreko etxea* inpernuko bidea da, eriotza zorigaiztoenean bukatzen dan bidea.

23. Zeña dala bide azkenean negar egin bearko

dezun, eta zure aragiak
eta gorputza deseginduko
dituzunean, esan bearko
dezun:

24. ¡Zergatik gorrotatu
nuen nik erakusbide latza,
eta nere biotza etzan ma-
kurtu ondo-esanetara, ez
aditu naiaz zigortzen nin-
dutenen itzik, eta nere
maisuen ikasbiderik?





Jaunak bedeinka ta zaitu zaitzala.

Jaunak agertu deizula bere arpegia, ta errukitu dedilla zutzaz: zугanontz izan dedilla bere begiramena, eta pakea eman deizula.

Jaungoiko Jaun guzialdunak bedeinka † dezala bere mirabe au.

ARKIBIDEA.

	<u>Páginas.</u>
Kristau onaren goiza.	9
Goizeko Otoitza	10
Maitetasun egintza	11
Etxetik ateratzean.	11
Elizan sartzean	12
Jesus Sakramentatuaren aurrean ar- kitzean.	12
Gaxo batentzat Elizakoak eramaten ikustean	13
Lanen bati asiera ematean.	14
Erlejuak ordua jotzean	14
Pekatuan erortzeko zorian arkitzean.	14
Pekatuan erortzen danean.	15
Ondoezik arkitzen danean.	15
Norbaitek kalte egin digunean	16
Mayaren bedeinkapena.	16
Bazkal-ondoan Jaunari eman bear zaizkan eskerrak	17
Ezkillak otoitza jotzean.	17
Otoitza	19
Ama Birjiñari agurra.	19
Oeratzean	20
Maria txit Santuari otoitza.	21
Jesus gure Erosleari otoitza	22
Jesus'en Jainkozko Biotzari otoitza.	23
Erroke Santuari otoitza.	24
Aingeru Zaintzalleari otoitza	26
Izeneko Santuari otoitza	27
Purgatorioko animen aldez otoitza.	27
Jose Santuari otoitza.	28

	<u>Páginas.</u>
Karmen'go Ama Birjiñari otoitza.	30
Sinispén, Itxodopen ta Maitetasu- nezko egintzak	31
Padua'ko Antonio deunari otoitza .	32
Padua'ko Antonio Santuaren amai- ru astearteak egiteko era. . . .	34
Damu-Egintza.	36
Antonio Santuari eskeintza	38
Padua'ko Antonio Santuari eran- tzunkaya	40
Lendabiziko asteartea	41
Bigarren asteartea.	51
Irugarren asteartea.	59
Laugarren asteartea	69
Boskarren asteartea	77
Seigarren asteartea	83
Zazpigarren asteartea	88
Zortzigarren asteartea	99
Bederatzigarren asteartea	104
Amargarren asteartea	110
Amaikagarren asteartea.	114
Amabigarren asteartea	118
Amairugarren eta azkeneko astear- tea	122
Padua'ko Antonio santuaren min- gain txit santuari agurra. . . .	126
Beartsuen ogia.	128
Irakasbidea	134
Gauz galduak	136
Irakasbidea	141
Antonio Santua ta Jesus aurra . . .	143
Irakasbidea	147
Antonio Santua eta Ama Birjiña. .	150
Astearteen eraspéna.	155

	<u>Páginas.</u>
Etsaiari gogor ekiteko Padua'ko Antonio Santuaren otoitza	159
Paduatar Antonio Santu zorientzua- ren bederatziurrena.—Lendabizi- ko eguna.	160
Bigarren eguna	162
Irugarren eguna	164
Laugarren eguna.	165
Bosgarren eguna.	166
Seigarren eguna	167
Zazpigarren eguna	168
Zortzigarren eguna	169
Bederatzigarren eguna	170
Meza Santua bear bezela entzuteko bidea	171
Gurutze-bide edo Kalbario'ko jar- duera santua.	208
Aitorketa ondo egin eta Jauna ondo artzeko bidea	239
Begira orain.—Lenengo aginduan .	242
Bigarren aginduan	244
Irugarren aginduan	245
Laugarren aginduan.	246
Bosgarren aginduan.	248
Seigarren aginduan	249
Zazpigarren aginduan	251
Zortzigarren aginduan	252
Pekatuak gogoratu ondorengo eta aitorketa-aurreko otoyá.	254
Aitorketa ondorengo otoyá	259
Jaun-artze aurrerako Jaungoiko gu- re Jaunari otoyá	262
Jesukristo gure Jaunari otoyá. . .	263
Espipritu Santuari otoyá.	264

	<u>Páginas.</u>
Jaun-artze ondorengo otoyá.	266
Jaun-artzearen ondorengo eskerrak emateko Tomas Santu erakuslea- ren otoyá.	268
Jesus'en biotzari ziñez nai dion biotz baten jarduera.	272
Maitetasunezko egintza.	275
Gure Ama Birjiñaren abestiak	277
Padua'ko Antonio Santuaren pozak.	280
Bulda Santuaren Barkapenak ira- bazteko bost aldareen ikustaldia.	281
Salomonen esaerak, eskritura sagra- dutik atereak	292
Asis'ko gure Aita Pranzisko santua- ren bedeinkaziyoa.	298



